



## Burundarako hiztegi bat

Lau urtez aritu da Koldo Zuazo hizkuntzalaria hitzak bilduz / 2-4

**Udalek eta kontzejuek erabilera askeko funtsetik 854.938,98 euro jasoko dituzte / 9**

**Etxarrengo Ardantzeta industrialdeak 460.000 metro karratu izanen ditu / 6**

**Manuel Iznaolak Atakondoarekin lotura izan duten 53 kirolariren bizipenak liburuan jaso ditu / 18-19**

**Mendialderako 2022-2030 Estrategia Plana egin du Plazaola Turismo Partzuergoak / 12**

**Mikel Uncillaren zilarra eta Nahia Imazen brontzea utzi ditu Espainiako Txapelketak / 16**

**Nerea Balda Sanjuan idazle irurtzundarrak 'DardaraK' poema bilduma argitaratu du / 23**



Koldo Zuazo Zelaieta hizkuntzalariak Urdiaingo sanpedroetako suziria bota zuen.

# Burundako 3.941 hitz

Koldo Zuazo Zelaieta hizkuntzalariak 'Burundako Hiztegia' argitaratu du. Lau urtetan Urdiainen hitzak biltzen aritu da, eta lan horretan lau urdiaindarren laguntza izan du. Garilaren 1ean aurkeztu zuen, festen hasiera suziriaren aurrerapen gisa

**Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso** URDIAIN  
"Hilabete batzuk egin ditut hemen Urdiainen. Lanerako ez naiz gehiago etorriko; hurrengo etortzen naizenean trago bat hartzera izango da". Koldo Zuazo Zelaieta hizkuntzalariak Burundako Hiztegiaren aurkezpenarekin lau urteko lanari amaie-

ra eman zion. "Lana despeditu dugu, hiztegi bat egitea ez da zaila, baina luzea da". Garilaren 1ean, ostiralean, Urdiaingo festen atarian aurkeztu zuen, eta garilaren 2an Urbano Zelaia, Ipi Zelaia, Mariano Galarza eta Julian Etxeberriarekin batera sanpedroak iragartzen zuen suziria bota zuten. Lau urdiain-

darrak hiztegia osatzen lagundu duten "lagunak" izan dira.

Hiztegi bat egiten hasten direnak hizkuntzako hitz guztiak bildu nahi dituztela aitortu zuen Zuazok, "eta hori ezinezkoa da. Milaka, infinitu, hitz daude. Gutako edozeinek asmatu egiten ditugu". Cordobara joan zenean, esaterako, lagun

batekin Mezkitan zeudela lagunak esan zuen "leku zutaritsua" zela; "sekula entzun gabeko hitza zen, eta harrezkero ez dut berriz aditu. Seguru lagunak momentu horretan asmatu zuela". Izan ere, euskararen mendi asko dagoen tokia menditsua bada eta haize asko dabilen lekua haizetsua bada, orduan Mezkitan zutabe asko dagoen tokia denez zutaritsua da. "Orduan, pentsatzea hitz denak bilduko ditugula nahiko utopia da".

## Lau kriterio

Hitz denak ezin zituela bildu onartuta, Zuazok erabaki zuen Urdiainen hiru urte pasako zituela eta 4.000 hitz bilduko zituela, "asko jota 4.500". Hartu behar izan zuen bigarren erabakia izan zen, hitz kantitate jakin hori jaso nahi bazituen, zein hitz bilduko zituen eta zein hitz utziko zituen kanpoan. Lan hori egiteko lau

kriterio erabili zituen hizkuntzalariak.

XX. mendeko bigarren erditik, 1950ko hamarkadatik, gaur egunera erdaratik etorritakoak hiztegitik kanpo utzi ditu. "Zergertatu da bigarren mundu gerraren eta 1939tik aurrera? Gauza asko asmatzen direla, asmatu da telebisioa, labadorea, frigorifikoa...". Tresna asko asmatu dira, eta tresna bakoitzak bere izena du, "izen horiek zabaldu dira, kasu batzuetan, mundu osora eta beste kasuetan Europara eta Ameriketara". Plastiko, aluminio, titanioa... leku askotan erabiltzen diren hitzak dira. Baita komunikazioaren munduan asmatu diren "hitz mordo bat" ere: Instagram, Internet, Wifi, Whatsapp, email... Kirolaren munduko hitz berriak ere alde batera utzi ditu: Surf, windsurf, mountainbike. eta abar.

"Gauza da kriterio horren arabera milaka eta milaka hitz alde batera utzi ditudala". Hala ere, salbuespen batzuk egin ditu, *kartona* hitza, esaterako, hiztegiaren agertzen da. "Zergatik *kartona* bai? Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan *kartoia* edo *kartoie* esaten dugu, Lapurdin eta Nafarroa Beheran *kartoina* esaten da, eta Xuberoan *karto*. Hemen *kartona* esaten da". Burundako euskarak Nafarroakotik gauzak gertu dituela azaldu zuen Zuazok, eta informazio hori hiztegi batera eraman behar dela. Horregatik ere agertzen dira: *marrona*, *limona*, *melona*, *melokotona*, *frontona*, *balkona*, *sagona* eta

**"LANA DESPEDITU DUGU, HIZTEGI BAT EGITEA EZ DA ZAILA, BAINA LUZEA DA"**

**"BAINA BETI URDIAINGO EUSKARAREKIKO GOGO HORI NUEN; BEREZIA DELAKO"**



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea







Burundako hiztegiaren aurkezpena Urdaingo herriaren etxien.

abar hitzak. "Hor ikusten da Burundako euskarak gauza batzuetan Gipuzkoatik hartu dituela, beste gauza batzuk Arabatik hartu dituela, *domeka* eta *izara* bezalako hitzak Arabatik etorri ziren, eta beste gauza batzuk Nafarroatik etorri ziren". -ona bukaera duten hitz horiek, beraz, sartu behar ziren. Sartu dituen hitz horiek Europan gehienenean eta Amerikan "antzeko" esaten dira.

Hizkuntzalariak kontuan izan zuen bigarren kriterioa Euskal Herrian 1964. urtea eta gero sortu diren hitzak ez sartzea izan da. Eta zergatik urte hori? Zuazok azaldu zuen: "Urte horretan hasi zelako egiten euskara batua, eta euskara batuaren izenean hitz mordo sortu dira". Adibidez, *helburu* hitza sortu zen eta harekin *helbide*, *helmuga* eta *bestelako* eratorriak. "*Hel* hitza zaharra da, baina beste horiek berriak dira".

#### Euskara batua

XX. mendean ere hitz berria hartu ditueuskarak, nahiz eta berriak ez izan. *Saunak* Finlandian aspalditik daude, "baina guk noiz ezagutu ditugu? XX. mendearren bigarren erdian". Antzeko zerbaite gertatzen da *yoga*-rekin, "aspaldiko kontua da, baina guk duela gutxi ezagutu dugu". *Lasagna*, *espageti*, *ravioli* eta *pizza* aspaldiko hitzak ziren Italian, baina *whiski* eta *vodka* Eskozian eta

Errusian ere. "Aldi berean, guk *txakolina* aspaldi ezagutzen genuen, baina orain hasi dira ezagutzen mundu zabalean".

"Euskara batuarekin ere hori gertatu da. Denak ez dira hitz berriak izan, batzuk birziklatu egin dira, eta esanahia pixka bat aldatu da, eta gaur egun egunerokotasunean erabiltzen ditugu". Zuazok adibide bat jarri zuen: *Kirol*. XVI. mendean agertzen da lehenendabiziko aldiz eta jolasean bezala dela ematen du, hizkuntzalariak azaldu zuenez. "Gaur egun ez du esanahi hori; *deporte*-arekin lotzen dugu". Tradizioan agertzen den hitz bat gaur egunera ekarri, esanahi berria eman, eta hitz berriak sortu dira: "*Kirolari*, *kiroltasun*, *kiroldegi*, *polikiroldegi*, *herri kirolak*...".

Euskaltegira joan gabe ezagutzen den beste hitz bat, azaldu zuen Zuazok, *zinegotzi* da. "Iparraldean ez da askorik erabiltzen, baina hegoaldean nahiko normal bihurtu da". *Zinegotzi* Erronkarieta, "dirudienez", Aezkoa aldean erabiltzen zen hitz zahar bat da. "Guk gaur egunera ekarri dugu eta *concejal* esateko erabiltzen dugu". Alkatearekin batera uda

**"GERO ZUEK ERABAKIKO DUZUE ZER EGITEN DUZUEN, BAINA NIK HITZ HORIEK SARTU DITUT"**

letxea sortzen duen taldea osartzen dute zinegotziek, beraz. Kriterio honen barruan beste adibide bat opor hitza da. "Orain dela ehun urte ez ziren bakazioak existitzen. Jai hartzen zen domeka osoan edo domeka arratsaldean". Opor hitzak esan nahi zuen euria egiten zuelako edo resaka zegoelako lanera ezin joatea, "lanera hutsegitea, opor egitea. Gaur egun, bakazioak esateko erabiltzen dugu oporrak hitza".

#### Globalak

Amaitzeko, euskara batuaren izenean leku jakin batzuetan erabiltzen ziren hitzak "globalizatu" direla esan zuen Zuazok. Esaterako, aholku hitza, aholkularitza bezala hitzekin zabaldu dela azaldu zuen. "Hitz berria da asesoria esateko, aholku-tik hartu dugu hitz hori". "Arrakasta" handia lortu duen beste beste hitz bat ulertu hitza da. "Bizkai-ko mendebaldean erabiltzen da, Mungia, Leioa, Larrabetzu, Lezama eta alde horretako hitz bat da". Gaur egun, aldiz, oso zabaldua dagoela, eta "zazpi probintzetako jendeak" erabiltzen duela gaineratu du hizkuntzalariak.

Zuazok hitzak aukeratzeko orduan erabili duen hirugarren kriterioa herri bateko hiztegi generala deitutakoa izan da: "Herri batean, Urdaingo edo Burundako, badira kizuzgileak, joskinak, nekazariak... eta ofizio

bakoitzean badira hitz berezi batzuk. Batzuk denek ezagutzen ditugu, beste batzuk ofiziokoak bakarrik ezagutzen ditu". Adibide bat jarri zuen: "Nekazaritzako tresna bat da gurdina, hiztegiaren agertzen dena. Garai batean baziren gurdiak eta gaur egun ere badira gurdiak. Ez dira zurezkoak, metalezkoak dira, baina gurdi hitza errekueratu daiteke". Horri lotuta andartza hitza aipatu zuen ere, gurdia traktorearekin lotzeko erabiltzen den pieza, txirrika gurdia da, "eta gaur egun ere edozein bizikletak, trenak, autok txirrikak erabiltzen dituzte ere". Beraz, egunerokotasunean balio dezakeen hitz bat zela uste zuen Zuazok: "Gero zuek erabakiko duzue zer egiten duzuen. Baina nik hitz hauek hiztegiaren jarri ditut".

Txori, landare, arbola eta belar izen "denak" biltzen ahalagindu da hizkuntzalaria. Baita perretxikoen eta harrien izenak ere. "Tresnak modatik pasatzen dira. Tresna bat asmatzen da, gero zaharkitua gelditzen da beste bat agertzen delako, eta hitza ere zaharra gelditzen da; aldiz, arbola edo

**ZEIN HITZ SARTU ETA ZEIN EZ SARTU ERABAKITZEKO KOLDO ZUAZOK LAU KRITERIO JARRAITU DITU**

txori izenak betirako gelditzen dira".

Hiztegia osatzeko norbaiten laguntza behar zuela azaldu zuen Zuazok, eta Urbano Zelaia, Ipi Zelaia, Mariano Galarza eta Julian Etxeberria urdiaindarren laguntza izan du. Hori izan da zein hitz sartu eta zein ez erabakitzeko laugarren kriterioa. "Haiei galdetu nizkien 6.000 hitz inguru". Hizkuntzalariak bazekien, adibidez, Nafarroan deus hitza erabiltzen zela, lau lagunei galdetu zien eta beraiek ez zutela erabiltzen esan zuten, "guk esaten dugu ezer". Orduan, deus kanpoan utzi zuen. Nafarroan aunitz esaten da, "baina hemen asko esaten da". Aunitz kanpoan geratu da. Nafarroan "ia guztian" esaten den beste hitz bat apeza da, "galdetu nien eta haiek esan zidaten apez ez, apiz eta garai batean abad esaten zela". Beraz, apiz eta abad agertzen da hiztegiaren, baina apez ez. "Lau lagun horiek niretako hoberenak bezain onak izan dira. Hemen jaio dira, gurasoak hemengoak ziren, bizimodu gehiena hemen egin dutelako eta bizimodu horretan euskarari heldu diotelako".

Lau urdiaindar hauengan "konfiantza osoa" eduki duela aitortu du, baina zesio batzuk egin ditu ere hizkuntzalariak. "Esate baterako galdetu nien arandano nola esaten zen eta nire lagunek arandanoa esaten zela esan zidaten. Baina badago Altsasun

1965ko hiztegi bat eta bertan ahabia agertzen da". Ahabiak jaten direnez eta azken aldian hitza galduta dagoen arren, "gure hitza da eta errekueratu behar dugu". Hitza ikasi behar dela, ikastoletan eta eskoletan erabili behar dela gaineratu zuen.

Beste salbuespen bat mantel eta servilleta hitzak izan ziren. Lagunei galdetu eta mantela eta serbilleta esaten zutela erantzun zioten. Baina 1965ean Bakaikuko hiztegi batean saiaua eta saiaua txikia agertzen dira. "Iruditzen zait bi hitz garrantsuak direla egunerokotasunean erabiltzen ditugulako". Hiztegiaren egon behar zuten.

### Hiztegia

Lau kriterio horiek jarraituta 3.941 hitzez osatutako hiztegia egin du Zuazok. "Nire helburua perfektu bete dut". Urteena ez du ondo bete, izan ere, hiru urtetan sortu nahi zuen hiztegia eta lau urte egon behar izan du. "Arrazoa Covid-a harrapatu gintuela izan da. Birusagatik etxetik ezin atera egon ginen". Baina lau urtetan hiztegia despeditu dute. "Ez naiz aspertu, ez naiz hil, sasoi su nago eta, orduan, fenomeno".

Hiztegiak bi zati dauzka: Burundako euskara eta euskara batua, eta bigarren zatia erdara euskara. "Iruditzen zitzaidan sartu behar zela ere". Esaterako pendiente hitza Burundako euskaran nola esaten den bilatuz gero, zintzirrin esaten zaiola jakin ahalko du. Hiztegiaren denetarik agertu behar denez, "hitz politikak eta ez politikak", gaztelaniazko pene hitzaren adierak aipatu zituen ere: "Pinpilin eta buztan agertzen dira; eta pene de chico joven pinpilin eta pene de niño pinpilin. Ondoren Peña haiz, eta perro txakur. Baina perro de muestra luma txakur; ratonero arratoi txakur". Hiztegiaren ez dira agertzen erdarazko antzeko hitzak, esaterako, kafe edo jaleo. Rico aberats eta oscuro ilun bezalako hitzak sartu ditu, baina ez horien eratorria: aberasgarri, aberastasan, iluntasun, iluntze, ilundu... "Oso eskematikoa da".

"Niretako herri hau sorpresa on bat izan da". Herritarren galderak erantzunez, Urdiainera nola iritsi zen azaldu zuen Zuazok: "Lanean hasi nintzenean, 1989an, Arabako euskara aztertzea izan zen nire asmoa, hor egiten nuelako lan. Pentsatzen nuen Araba erdi-Castilla zela". Arabako eus-

karari buruzko lan bat egin zuen, baina gehiago "jakiteko gogoekin" gelditu zen eta pentsatu zuen Arabako ondoko "euskara bizirik" zegoen herrietara joan behar zuela pentsatu zuen. Aretxabaleta eta Oñati inguru horretan egon zen eta gero Goierriera joan zen; Idiazabal, Segura, Zegama, Ataun... "Nik ez nuen Burunda ezagutzen. Burundesa autobusa bai, baina Burunda ez. Hasi nintzen ikusten non egiten zen euskara hemen, Burunda, eta Urdiain aurkitu nuen". Hortaz, Urdiainera "galdera batzuk egitera" etorri zen, eta sorpresa hartu zuen. "Hemengo euskara ezagutu nuen alde handia ikusi nuen Goierrikotik hona".

1990ko hamarkadaren hasieran Urdiaingo euskarari buruzko lantxo bat egin zuen. Gero beste lan batzuk egin zituen, "baina beti Urdiaingo euskararekiko gogo hori nuen; berezia delako". 2007an Txarori bere etxea alokatuko ziola esan zion, "hemen egon nahi dut, eta hiru urtetan, urte bakoitzean, hiru hilabete etortzen nintzen". Azkenean, 2010an hiztegia egin behar zela pentsatu zuten, eta gaia moteldu bazen ere, 2018an Urdiainera itzuliko zela eta hiztegia egingo zuela esan zuen. "Oso pozik nago. Hori da egiten dakidana, hiztegiak eta gramatikak; eta iruditzen zait orain bahintzat baduzuela zuen euskara erakusteko eta ikasteko tresna bat".

Urdiainarren bigarren mezuari erantzunez, hiztegi bat egitea "lan gogorra" dela aitortu du Zuazok. Boluntarioekin bi orduko saioak egiten zituen, eta ez zela lan erraza esan du: "6.000 hitz dira, baina horiekin hitzak zer esan nahi duen eta adibide bat jartzeko eskatzen nien; esaldi batean jartzeko. Lan hori egiteko kontzentratu behar zara". Hiztegia egiten lagundu duten urdiaindarrendako, beraz, "lan gogorra izan dela" uste du hizkuntzalariak: "Meritua haiena izan da. Horiek izan dira hiztegia egin dutenak".

### Galderak

"1989an hasi nintzen lanean, eta gauza arraroak entzuten ditut azken aldian Euskal Herriaren euskara batuaren inguruan. Batzuk esaten dute batua laboratorizko, artifiziala, plastikozkoa dela, ez daukala naturaltasunik. Beste batzuk esaten dute euskalkiak nekazarien hizkerak direla, eskola gabeko jendearen hizkera,



Koldo Zuazo Zelaieta hizkuntzalari Urdiainen.

**LAU URDIANDARREN LAGUNTZA IZAN DU, "HAIK IZAN DIRA HIZTEGIA EGIN DUTENAK"**

**"NIRE ERANTZUNA DA EZ DAGOELA BAT HOBERENA DENIK; EUSKARA GUZTIAK BEHAR DITUGU"**

jende basatien dialektoa". Era berean, Zuazok jarraitu zuenez, euskara ikasteko zaila esaten dutenak ere direnez, "dialektoak edo euskiak, edo hika erakusten baditugu" prozesua "gehiago konplikatu" dela, eta horregatik hobeto dela bakarrik euskara batua erakustea. "Horrelako gauzak entzuten ditut Bizkaitik hasita Zuberoa bitarte".

Horren aurrean bi galdera planteatu zituen hizkuntzalariak: "Zer nahiago duzue hankatako, oinetako, pare bat edo pare asko?". Hankatako pare asko nahiago dituela erantzun zuen: ibiltzeko, errekan sartzeko, domekan dotore jantzi eta ateratzeko, etxean goxo egoteko... "Zenbat pare gehiago ibili gauza gehiago egin ahal izango ditut egoera horietan". Bigarren galdera izan zen ea zein den hankatako parerik hoberena. "Nire erantzuna da ez dagoela bat hoberena. Mendira joateko batzuk dira onak, errekarra joateko beste batzuk, hondartzara joateko beste batzuk". Euskararekin gauza bera gertatzen dela ondorioztatu zuen Zuazok. "Gelditzen bagara euskara batuarekin mugatuko gara, izango dugu hizkuntza bat oso murrizta". Euskara batua liburuak idazteko eta irakurtzeko "ondo" dagoela esan zuen, "baina Urdiainen gaudenean normalena da Urdiaingo euskara egitea. Hau gure territorioa delako, eta gure territorioan hemengoak egin behar dugulako". Bide horretan, kanpotik etortzen denari erakutsi beharko zaiola esan zuen.

"Eta ez da bakarrik euskara batua edo dialektoak. Hizkuntzarekin ibiltzen naiz ni eta hemen esango dut esaldi, baina nire lankideekin perpaus esango dut. Baina ez diet lagunei perpaus esango, pedantea iruditzen zaiadako". Euskarak argotak ere behar dituela azaldu zuen hizkuntzalariak. "Abokatu batek behar ditu bere hitzak, ikasle batek bereak...". Hika eta zuka erabili behar dira ere: "Zuka zaharragoak direnekin erabiliko dugu, eta gazteagoak eta gure adinekoak direnekin hika erabiliko dugu".

Batua beharrezkoa eta ongi dagoela esan zuen Zuazok, baita euskalkiak ere beharrezkoak direla eta ongi daudela. "Behar ditugu gure hizkuntza honek esparru guztietan egon behar duelako indartsu. Batuak gogor egon behar du, baita euskalkiak ere".





ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

## Bertako zuhaitzak mantendu behar dira

GUAIXE astekarian, joan den uztailaren 1ean, merkataritza oinarrizko zerbitzuetako Lanbide Heziketako lau ikasleri egindako elkarrizketa bat argitaratu zen. Bertan basoetako karbonoaren neurketa bat egin dutela azaldu dute. Zuhaitzek karbonoa atxikitzen dute, baina zuhaitz nahikorik ez badago, karbono horrek atmosferan bukatzen du eta berotegi efektuan eragiten du. "Bertako espezieak gailendu behar dira, eta horiek hedatu beharko lirakeke. Garrantzitsua da karbonoa basoetan biltzea".

Hemengo zuhaitzak zaintzeko eskatzen diguten ikasleak Christian, Yahir, Houssam eta Abdel dira. Aztertzeke, Iñigo Aritza ikastolatik gertu dagoen Dantzalekuko haritz baten karbonoa neurtu dute. Kontuan izanda haritz baten bizitza 200 eta 300 urte bitartekoa dela, eta ikastolak 50 urte beteko dituela aurten, ziur aski Dantzalekuko haritzak hor jarraituko du beste 50 urtez ondo zaintzen badugu.

Herritik sortu den 50 urteko bizitza duen ikastola, gero eta anitzagoa den herri bat. Leire Baztarrika zuzendariak erronka berriei buruz hitz egin du, biztanleria aldakorrago bati buruz eta kultura berriak ekartzen dituen. Iñigo Aritza ikastolak 50 urte gehiago jarraitzeko euskara eta ikastola zaindu behar ditugu. Juan Goytisolo idazle katalanak behin idatzi zuen: "Gizakia ez da zuhaitz bat: ez du sustrairik, oinak ditu, oinez doa." Horregatik da gaur egun Iñigo Aritza jatorri askotako ikastola. Ikastola bat, non Yahir eta Abdelen semeek bertako zuhaitzak zaindu behar dituztela ikasiko duten.

Herritik sortu den 50 urteko bizitza duen ikastola, gero eta anitzagoa den herri bat. Leire Baztarrika zuzendariak erronka berriei buruz hitz egin du, biztanleria aldakorrago bati buruz eta kultura berriak ekartzen dituen. Iñigo Aritza ikastolak 50 urte gehiago jarraitzeko euskara eta ikastola zaindu behar ditugu. Juan Goytisolo idazle katalanak behin idatzi zuen: "Gizakia ez da zuhaitz bat: ez du sustrairik, oinak ditu, oinez doa." Horregatik da gaur egun Iñigo Aritza jatorri askotako ikastola. Ikastola bat, non Yahir eta Abdelen semeek bertako zuhaitzak zaindu behar dituztela ikasiko duten.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulua bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

HARA ZER DIEN

## Maisuenea gaztetxea

### OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA

1995eko maiatzaren 9an Olaztiko gazte talde batek maisuen etxea zena okupatzea erabaki zuen. Hilabete horietan zehar hainbat tirabira izan ostean, proiektua aurrera eraman zuten gogo eta konpromiso handiarekin.

Urteak pasa ahala, lekukoa belaunaldiz belaunaldi pasatuz, herriari bizitza eman zaio; milaka bazkari, milaka olinpiada, herri ihotek, mendi martxak,

auzolanak, festak eta abarrak antolatuz.

Pandemia ostean, gaztetxeak funtzionatzen ez zuela ikusita, asanblada berritu genuen, gaztetxea martxan jarritz. Astean behin asanblada bat egitea erabaki genuen helburu eta ekintzei jarraipen zentzudun bat emateko asmoarekin.

Hautu hori hartu eta gero, ereindako haziaren uzta jaso dugu. Azken hilabeteetan burututako zenbait ekintza

dira hauek: gazte zinemak, Maria Arrokokaren antzerkia, Korrika eguneko bertso afaria, gazte sagardotegia, XVII. urtemuga, Euskal Herria-Donbass komitearen hitzaldia eta Mitxelen omenezko areto futbol txapelketa.

Modu honetan, urtean zehar antolatzen joango garen ekintzetara gonbidatzen zaituztegu.

Maisuenea Gaztetxeari beste hainbat urte opa dizkiogu.



OBJEKTIBOTIK



## Jaioko dira besteak

Joan den urtean jo zuen oinazturak San Pedroko haritza eta ordundik lozorroan egon da, aurtengo udak kimu berriak ekarri dituen arte.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

### Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazza

### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
[kirrolak@guaixe.eus](mailto:kirrolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Industrialdeak 460.000 m<sup>2</sup> izanen ditu

Arakilgo Udalak ez du gehiago garatu nahi Etxarrengo industrialdea, eta foru administrazioa ados dago. Industria lur berriak Ardantzeta izena du; toponimoak garai batean han izanen ziren mahats alorrei egiten die erreferentzia

ARAKIL

Etxarrengo 456.000 metro karra-tu gordineko industrialdea egiteko 11.600.000 milioi bideratu-ko ditu foru administrazioak. Hala jakinarazi zuen Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrena bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak apirilaren 4an.

Tamaina horretako industrialdearekin ados dago Arakilgo Udala, eta ez du gehiago handitu nahi. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, "handiagoa neurrigabea litzateke. Gainera, lur horiek abeltzaintza eta nekazaritzako ekoizpen lurrak dira gaur egun". Alkateak azaldu duenez, Udalez Gaindiko Sektore Proiektuak industrialdea azalera horretara mugatuko du. Olaberriak esan duenez, "ez dugu metro asko eta ez dugu lanpostu gutxi sortuko dituen logistika eremurik nahi. Kutsakorra ez den eta lanpostuak sortzen dituen industria jarduera lehenesten dugu". Alkateak ziurtatu duenez, foru administrazioa "haien planteamenduei guk emandako erantzunak entzuten ari da".

Arakilgo Udalak Nafarroako gobernuari egindako proposamenen artean dago Errepideak



Industrialdeko errepeidea eta biribilgunea. ARTXIBOA

Zaintzeko Zentroaren eta Nafar-bide enpresa publikoaren egoitza. Foru administrazioak Etxeberriko markesinaren eta gatzontziaren ondoan jarri nahi ditu eta arakildarrek Ardantzeta industrialdean kokatzea proposatu diote, han azpiegitura guztiak eginda daudelako eta irteera egokiagoa duelako. Gobernutik aukera aztertuko zutela esan zieten, baina, oraindik, ez dute erantzunik eman. Aipatu zentroa gaur egun Irurtzungo Trinitate kalearen 19an dago eta 7.301,77 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

## Aristrain

Nafarroako Gobernuaren esku daude garai batean Aristrainek ziren milioi bat metro karra-tuko lurak. Olaberriak esandakoaren arabera, geroz, Harivenasa enpresa kokatu den zatia da garatuko dena bakarrik. Alkateak gogora ekarri du Nafarroako Gobernuak Arcelor Mittalengandik lurak eskuratu eta han industrialdea jartzeko erabakia hartu zuenean Arakilgo Udalarendako eta arakildarrendako erabakia "inposizioa" izan zela.

## Iturmendik langilea kontratatuko du

Oposizio lehiaketan parte hartzeko eskabideak hilaren 30era arte aurkez daitezke

ITURMENDI

Iturmendiko Udalak, oposizio lehiaketa bidez eta funtzionarioen araubidean, zerbitzu anitzetako enplegatuaren lanpostua betetzeko deialdia egin du. Probal-diaren bidez aukeratua den pertsonak udalak zerbitzuaren beharrei erantzuteko ezarritako ordutegia eta lanaldia izanen ditu. Lanpostuan interesa dutenek euskara jakin beharko dute (B2 maila). D mailari dagokion soldata eta Iturmendiko Udaleko plantilla organikoan jasotzen diren osagarriak ere jasoko ditu.

Bestalde, Iturmendiko Udalak jakinarazi duenez, lanpostua bete ondoren, gainontzeko gainditutako zerrendarekin lan poltsa osatuko du aldi baterako kontratazioak egiteko. Horretarako, kontuan izanen du hauta-probak gainditu dituzten izangaien puntuazio ordena.

Azkenik, administrazio publikoetan langileen behin behine-kotasuna murrizteko legea indarrean da eta Bakaikuko eta Iturmendiko Udalek jakinarazi dutenez, administrari ofizial lapostua betetzeko oposizio lehiaketa deituko dute. Deialdiak 2024rako eginda egon behar du. Langilea bi udaletxetan aritzen da lanean.

## Plazaolaren ibilbidea berreskuratzeko pausoak

Iruñerriko hiru zatiri dagokion espedienteak aurki jendaurrean izanen da

ARAKIL / IRURTZUN

Plazaola turismo partzuergoak eta Nafarroako Gobernuak Plazaolako trenbide zaharraren trazadura berreskuratzeko lanean jarraitzen dute. Orain arte Andoain eta Sarasa arteko bidea berreskuratu da, nahiz eta abenduko euriteek bidearen hainbat zati hondatu eta haiek konpontzeko lanean ari diren. Trenbide hartan ibiltzen zen tren Iruñetik abiatzen zen eta hiriburura arteko bidea berreskuratzeko beste erabaki bat hartu zuen Nafarroako Gobernuak astear-tean: Iruñea eta Irurtzun artean falta den ibilbide zatia egiteko Udalez Gaindiko Eraginaren Plan Sektoriala aldatzeko espedienteak izapidetzen hasteko erabakia.

Gobernuak jakinarazi duenez, aldaketak trazadura aldaketari eragiten dio hiru zatitan: Oron-sospe auzoaren eta Berriozar herriaren artean; Berriogaiti herrigunean eta Añezkar gainean, baita Berriobeitiko desjabetze eremuan ere. Espedienteak aurki jendaurrean jarriko da eta ukitutako udalei entzunaldia emango zaie 30 eguneko epean, erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar-munetik kontatzen hasita.

EGUN ON SAKANA



GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK  
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK

10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA

10:15 BATETI BESTIA

10:20 EGUNEKO ALBISTEAK

10:45 HIZKETAN

11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN

11:55 AGURRA



beleiXe

107.3 FM  
ONLINE WWW.GUAIXE.EUS





“Oso atsegina da nire ezagutzak praktikan jartzea.”  
Amaia



“Etengabe berritu eta eguneratu behar da.”  
Saioa



“Ez da bide erraza baino merezi du.”  
Asier



“Nire lanarekin oso libre sentitzen naiz, eta egunero gozatzen dut bizi naizen inguruneaz.”  
Mayte



“Nire lanak nire sormena garatzeko aukera ematen dit.”  
Maria



“Gustatzen zaidan horretan aritzea benetako luxua da.”  
Elena

## Zuk ere merkataria izan nahi duzu?

Bisitatu [merkataritza.nafarroa.eus](https://merkataritza.nafarroa.eus) eta lehen urratsa ematen lagunduko dizugu. 



Beraien istorioak ezagutu.



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Comercios de Navarra Nafarroako dendarak





Aurtengo edizioaren leloa 'hitzez ekiteko garaia' da. EUSKARALDIA

## Euskaraldiaren kanta, aho eta belarri martxan ipintzeko

Aiora Renteria, Petti, Maddalen Arzallus, Ainhoa Larrañaga eta Andoni Egañak kantatu dute 'Esazu hitz bat'

### SAKANA

Festetan modu batera edo beste-  
ra Euskaraldia presente egoteaz  
arduratu dira herrietako Euska-  
raldia batzordeak. Eta euskara-  
ren erabilera handitzeko ariketa  
sozialaren berri ematen lagun-  
duko duena *Esazu hitz bat* kan-  
ta da. Euskaraldiaren hirugarren  
edizioa iragartzeko abestia eta  
bideoklipa asteartean aurkeztu  
zuten (<https://labureus/Vm6NI>).  
Xabier Zabalarren musika eta  
Andoni Egañaren hitzekin sor-  
tutako abestiari bost abeslarik  
jarri diote ahotsa: Andoni Egaña  
hitzen egileak berak, Zea Mays  
taldeko kantari Aiora Renteriak,  
Petti musikariak, Maddalen Ar-  
zallus bertsolari eta kantariak  
eta Ainhoa Larrañaga musikari  
eta aktoreak.

### Zer da?

Euskaraldia euskara ulertzen  
duten hiztunen arteko ahoko\*

hizkuntza ohiturak aldatzeko  
ariketa sozial masiboa da, gizar-  
tearen gune guztietara zabaldua  
eta denborari dagokionez muga-  
tua. Beste era batera esanda,  
Euskaraldiaren helburu nagusia  
herritarren hizkuntza ohiturak  
aldatuta euskararen erabilera  
handitzea da. Helduen aktibazioa  
du oinarri, eta ariketa egin ahal  
izateko gutxieneko baldintza  
euskara ulertzea da. Aurrekoetan  
bezala Euskal Herria belarriprest  
eta ahobiziek beteko da aza-  
roaren 18tik abenduaren 2ra.

Ariketa edo praktika kolektibo  
bat da Euskaraldia. Ariketan  
maila pertsonalean edota kolek-  
tiboan parte hartu daiteke. Nor-  
banakoek irailaren 28tik aurre-  
ra eman dezakete izena. Baina  
erakunde, enpresa, kirol, kultu-  
ra, gizarte elkarte edota kuadri-  
llek dagoeneko Arigune gisa  
izena eman dezakete [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean.

# Igerilekuek ur festa goxoak hartuko dituzte

Gozamenez batzordeak antolatutako jarduera horien bidez gazteei sexualitatearen inguruko ikuspegi adeitsua eman nahi zaie. Gazteek gauz baina hartzeko aukera izateaz aparte, igerilekuan afaldu eta ongi pasatzeko aukera izanen dute

### SAKANA

Gozamenez programaren bar-  
nean, eta Sakanako Gozamenez  
batzordeak antolatuta, bueltan  
dira ur festa goxoak. Izan ere,  
pandemiak ez die ur festak au-  
rreko bi urtetan antolatzen utzi.  
Haien bidez, gazteek ezohiko  
ordutegi batean, gauz, igerilekua  
erabiltzeko aukera izanen dute;  
eta hitzordu bakoitzean hainbat  
jarduera ludiko izanen dira, esa-  
terako, afaria, jolasak eta beste.  
Antolatzaileek azaldu dutenez,  
"horien bidez gazteei ohartarazi  
nahi diegu gure gorputzak eta  
zentzumenak plazer iturri eta  
komunikazio bide direla". Bost  
hitzordu programatu ditu ba-  
tzordeak beste horrenbeste ige-  
rilekutan, guztiak 12 urtetatik  
aurrerako gazteei zuzenduta  
daude. Esaterako, Altsasun,  
20:30etik 23:30era hartu ahalko  
dute bainua eta ur jokotan aritu.  
21:30ean afaltzeko aukera izanen  
da eta 22:00etan aniztasun fun-  
tzionala duten gazte sakandarrek  
dantza ikuskizuna eskainiko  
diete. 23:00etan *Drag Show* ikus-  
kizuna izanen da eta 23:30ean  
txokolate iturria.

Gozamenez programaren es-  
kaintza horren bidez batzordeko  
kideek gazteen artean sexuali-  
tatearen ikuspegi "positibo, adei-  
tsu, plural eta aberasgarria" eman



Gazteak txokolate iturriaren inguruan. ARTXIBOA

nahi diete. Programak berak  
bere sorreratik "sexualitatearen  
hainbat alderdiri buruzko haus-  
narketa eta eztabaida sustatu  
nahi du gazteen artean nahiz  
gazteen eta haien bitartekarien  
arte (familia, ikastetxea, he-  
dabideak...)". Horrekin batera,  
"gazteen bizitzan sexualitateak  
duen tokia agerian utzi nahi du,  
gune publiko eta ohikoetan. Ba-  
tzordea osatzen dute Emakumea  
Laguntzeko Zentroko hezitzaileak,  
Altsasuko gazteria teknikariak,  
prebentzio teknikariak eta  
Etxarriko kultur teknikariak.

## Egutegia

### Garilak 12, asteartea

- Altsasu.

### Garilak 18, astelehena

- Iruztun.

### Garilak 19, asteartea

- Etxarri Aranatz.

### Garilak 20, asteazkena

- Lakuntza.

### Garilak 21, osteguna

- Uharte Arakil.

## Osasun publikoaren alde, astelehenetan osasun etxera

Astelehenero, 12:00etan, Altsasuko osasun etxean  
parean bilkurak egingen dira

### ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Altsasuko osasun eremuan osti-  
ralean mediku faltagatik larrial-  
diak besterik ez zituzten artatu.  
Asteartean 9.305 pertsonarenda-  
ko bi mediku eta pediatra bat  
zeuden. Asteazkenean, berriz,

pediatraz aparte mediku bakarra  
zegoen. Medikuen falta egunez  
egun luzatzen ari da. Osasunbi-  
deak jakinarazi duenez, jubila-  
tutako mediku bat hasi da Altsa-  
sun lanean (duela 30 urte bertan  
izan zen lanean). Lan Eskaintza

Publikoaren emaitzen berrikus-  
keta hilaren erdialdean egingen  
da eta medikuren batek Altsasu  
aukeratuko duen ikusteko dago.  
Agorrilean Hego Amerikako eta  
Kataluniako mediku bana eto-  
rriko direla aurreratu zuten  
Osasunbidetik.

Bitartean, egunerokoan altsa-  
suar, olaztiar eta ziordiarrek  
behar bezalako mediku asisten-  
tzari ez dute. Eta luze doa.  
Horregatik, Sakanako Osasun  
Publikoaren aldeko Plataformak  
herritarrek egoeratik protes-



Bilkuran osasun etxe parean. ARTXIBOA

ta egitera deitu ditu. *Osasungin-  
tza publikoa defendatu!* leloa  
aukeratu du deialdia egiteko.  
Altsasuko osasun eremuan dagoen  
mediku gabezia salatu eta beha-  
rrezko osasun arreta eskaintze-  
ko nahikoa profesional eta ba-  
liabide egotea eskatuko dute  
elkarretaratze horietan. Egoera  
bideratzeko premiazko konpon-  
bidea eskatu eta kalitatezko osa-  
sun arreta bueltatzea exijituko  
dute. Kontzentrazioak garileko  
eta agorrileko astelehen guztie-  
tan egingen dira.



## Festetan Zubeztian karpa jartzeko prozedura

Pertsona, kolektibo edo elkarteek hilaren 27ko 13:00ak arte egin dezakete eskaera

### ALTSASU

Altsasuko Udalak festetan (irailak 14-18) edozein pertsona, talde edo elkarteri aukera emanen dio Zubeztia plazan karpa bat jartzeko, han kultur eta jai jarduerak bertan aurrera eramateko. Eskabideak udaletxean edo Udalen Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez (<https://sedeelectronica.alsasua.net/eu/>) aurkez daitezke, eta eskaera bat baino gehiago badago, udalak zozketa egingo du guztien artean.

Udalak jakinarazi duenez, Zubeztia plazan jarri daitekeen karpak 9 metro zabal eta 20 luze izan beharko du. Hura jartzen duenak dagokion tasa eta fidantza ordaindu beharko ditu. Karpa irailaren 12tik 13ra bitartean muntatu beharko da, eta irailaren 19tik 20ra desmuntatu, irailaren 21ean plaza erabat libre eta garbi geratu beharko baita. Haren ordutegiari dagokionez, irailaren 16an eta 17an gehienez hurrengo eguneko goizeko 05:00ak arte eta irailaren 14, 15 eta 18 egunetan gehienez hurrengo eguneko goizeko 02:00ak arte. Bestetik, hartzaileak aseguru zibila kontratatu beharko du, garbitasunaz arduratu eta karparen erabilerak eragin dezakeen edozein arazoren arduraduna izanen da.

## Toki erakundeek 854.938,98 euro jasoko dituzte

Udalek 780.670,47 euro jasoko dituzte, haien artean banatutakoaren %5,91 eta kontzejuek 74.268,51, %4,13

### SAKANA

Ekonomia lankidetzarako tresna izan dadin, Nafarroako Parlamentuak tokiko erakundeen finantziazioaren eredu berria onartu zuen martxoaren 18an. Haren helburu nagusia da bermatzea nahitaezkoak diren udal zerbitzuak Nafarroa osoan ematen direla. Foru Legearen beritasunen artean Kapital Transfrentzien Funtsean egindako aldaketak daude.

Diru sail horretako baliabideak bi lerroen artean banatzen dira: inbertsio programak (lehenengo plan zuzentzaileak) eta libreki erabaki beharrekoak. Azken horretan udal eta kontzejuek Libreki erabaki beharreko inbertsioak daude. Toki entitate bakoitzak erabakitzen dituen inbertsioak egiteko erabiliko da. Funtsean %30 erabiliko da xede horretarako. Legea onartu eta bi hilabete zituen Nafarroako Gobernuak udal eta kontzejuen artean 15 milioi euro banatzeko proposamena egiteko; hurrengo urteetan lehen hiru hilekoaren barruan egin beharko du proposamena eta ordainketa bigarren hiru hilekoan egingen du. Banaketa egiterakoan kontuan izan du, batetik, herrien biztanleria eta, bestetik, biztanle guzteen geografia sakabanaketa. Udalerri konposatuaren kasuan (Arakil, Ergoiena eta Etxarri Aranatz), kontzejuek dagokien dirua zuzenean jasoko dute. Baina aukera dago kontzejuek eta udalak adostea azken horiek dirua ja-

sotzea. Aurten kontzejuek guztienez 3.000 euro jasoko dituzte.

Horiek guztiak kontuan izanda, Nafarroako Gobernuak Determinazio Libreko Programaren bidez toki entitateei dagozkion zenbatekoak zehaztu ditu, eta 30 egunetz jendaurrean egonen da. 15 milioi eurotatik ibarrak 854.938,98 euro jasoko ditu (diru guztiaren %5,7; sakandarrak nafarren %3,06 gara). Diru horretatik 13,2 milioi udalen artean banatzeko da eta Sakanako 15ek 780.670,47 euro jasoko lukete (%5,91). Herrialdeko kontzejuen artean 1,8 milioi euro banatuko ditu foru administrazioak eta horietatik ibarreko 15 kontzejuek 74.268,51 euro jasoko dituzte (%4,13). Kopuru horretatik 48.235,05 euro Arakilgo 11 kontzejuen artean banatuko da (Aizkorrek ez du kontzejurik, udalak kudeatzen du zuzenean), Ergoienakoendako 23.033,46 euro izanen dira eta Lizarragabengoakoak 3.000 euro jasoko ditu.



## Determinazio Libreko Funtse

Entitatea	Biztanleria*	Dagokion zenbatekoa
Altsasu	7.465	95.436,00
Arakil	962	50.116,57
Ekai	34	3.046,19
Etxarren	157	6.189,96
Etxeberri	60	3.710,72
Egiarreta	77	4.145,23
Errotz	67	3.889,64
Izurdiaga	178	6.726,70
Satrustegi	53	3.531,81
Urritzola	19	3.000,00
Hiriberri Arakil	114	5.090,92
Ihabar	136	5.653,22
Zuhatzu	42	3.250,66
Arbizu	1.109	63.624,00
Arruazu	106	31.812,00
Bakaiku	360	31.812,00
Ergoiena	370	23.033,47
Lizarraga	170	9.130,38
Dorrao	114	7.387,31
Unanu	86	6.515,77
Etxarri Aranatz	2.497	75.002,06
Lizarragabengoa	33	3.000,00
Irañeta	169	31.812,00
Irurtzun	2.247	72.732,00
Iturmendi	411	31.812,00
Lakuntza	1.275	63.624,00
Olatzagutia	1.490	63.624,00
Uhartte Arakil	789	59.902,37
Urdiain	661	54.516,00
Ziordia	350	31.812,00
<b>Sakana</b>	<b>20.261</b>	<b>854.938,98</b>

\*2021EKO ABENDUAREN 31KO BIZTANLERIA OFIZIALA

**DORRAUKO JAIETARAKO  
2 TABERNA  
ALOKATZEN DIRA**

Jaiak abuztuaren 12tik 15era izango dira

Interesatuak e-mail honetara idatzi dezatela  
ifturaldeaalkarte@gmail.com  
uztailaren 22 baino lehen.

**Txalaparta**

Taberna

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**PORTUKO**

Gosari goxo-goxoak egunero  
Etxarri Aranatz

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

## HARA ZER DIEN

**Eremu heze edo urtsuak toponimian: *madura/padura/fadura, siats*.**

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Horrela dakar Nafarroako Toponimia eta Mapagintza (NTM) X. liburuan Altsasuko *Madura* toponimoaren oharrean: "*En la toponimia vasca y muy especialmente en la occidental (Vizcaya y Alava), Padura, Madura es nombre de terrenos pantanosos y encharcados.*"

Eta latineko jatorria (*lat paludem 'pantano'*) omen du, zalantzarik gabe, Jimeno Jurio eta enparauendako. Baina halako eremuak ez ote zuen erromatarrak etorri baino lehenago izena jarriarik bertakoen aldetik? Euskaldunon harremana bere inguruarekin erromatarren eragina baino askoz ere lehenago hasi zen eta harreman horrek, ezinbestean, hizkuntzan ere isla izan behar zuen.

Mendebaldeko hizkeretakoia dugu toponimoa (*madura/padura/fadura*) eta Gasteiz ondoko Lautadako herrietan, Bizkaiko Elorrioren eta Gipuzkoako Oñatin eta Seguran ere ageri da. Eta Burundako toponimiario ere iritsi zen, baina hortik ekialdera ez da agertzen Nafarroan, antza.

Arabako ekialdeko lautadan 36 herritan *madura* eta 7tan

*padura* ageri da. 36 horietako bat da Agurain (*Madura* auzoa dago bertan) eta 1025eko "Reja de San Millan" dokumentuan "*Ocariz et Padura et Opaucu, una rega*" dago jasorik. Ez ote zen *Padura* hori Agurain baino lehenagoko bizilekua, egungo *Madura* auzoa dagoen eremuan kokatua izanen zena? Eta honetatik, orduan, jarraian azalduko dudana *Agurain* herriaren jatorria?

Jarraian ikus daitekeen irudiak XIII. mendeko *Agurain* aurkezten du. Bertan ikus daiteke muino batean (*gaina*) eraiki zutela herria eta irudiaren goiko aldean, iparraldean, Santa Maria eliza ere nabarmentzen da. Irudia agertzen den web orriaren bertan ere esaten da *Agurain* izenak "agurraren tokia" adierazten duela ("lugar del adios"). Azalpen sinpleegia nire ustean.



*Madura* auzoa, herrigunearen iparrekialdean, Santa Maria elizaren azpialdean dago eta bere kokapena ikusita, pentsa daiteke honen aspaldiko izenak, *Madura*, ikustekoa izan zuela herriaren izena erabakitzerakoan: *madura* + *-gain* > *\*maguradain* (metatesia) > *\*magurarain* (d/r txandaketa) > *\*maguraain* (dardarkariaren erortzea) > *Agurain* (hasierako sudurkariaren erortzea). Audikana herrian *Laadura*, *Madurabari* eta *Maguralde* toponimoak daude. Eta /f/ kontsonantez hasita balitz jatorriko izena ere, /f/ > /h/ gertatu den bezala beste hainbat kasutan gaztelanian (*farinam* > *harina*, *facere* > *hacer...*), antzeko bilakabidea litzateke kasu honetan ere: *fadura* + *-gain* > *\*faguradain* (metatesia) > *\*fagurarain* (d/r txandaketa) > *\*faguraain* (dardarkariaren erortzea) > *hagurahin* (horrela agertzen da 1025eko dokumentuan) > *Agurain* (kontsonante mutuen erortzea).

Sakana haranean, Altsasun *Madura*, Iturmendin eta Bakaikun *Madura* eta *Madurako bidea* ageri zaizkigu hasieran kontsonante sudurkaria daramatela eta ondoko Etxarritik ekialdera *siats* hasten da agertzen, egia bada ere Altsasun bertan bada azken toponimo edo toponimiako generiko hau: *siats* eta *siasburu*.

Eta Burundatik ekialdera ez da dagoeneko beste inon agertzen mendebaldeko toponimoa, ez bada hasieran kontsonante ezpainakaria daramanaren aldagaia izan daitekeena Irurtzunen (*La Parada*; *Parada*) eta Etxeberrin (*Parada*, 1780) ageri dena. Horrela jasoak ditu Carasatorrek (1993) horiek Irurtzunen: "*La Parada (1576 Leg. 4: junto al río caudal). En 'La Parada' había viñas que limitaban con el 'camino real' y con el río Agita*". Eta Etxeberrin, berriz: "*Parada (1780 N. La. Leg. 4 n° 50; 1900) Pieza 'en el termino llamado Parada pegante al río mayor y Camino Real (1790 N. La. Leg. 8 n° 840)*". Ez litzateke zaila jatorrizko *padura* izenetik *parada* sortzea, metatesia eta analogiaz suertatutako bokal aldaketa medio, are gehiago

toponimoa jasotzen zuenak euskara ez jakitekotan. Eremu bera dela adierazten dute Carasatorreren aipuek eta lekua egokia izan daiteke, ibaiaren ondoan, hezetasun handia bertan izateko.

Urdiainen (*Urdinbideko siatsa*) eta Etxarri Aranaztik ekialdera, soilik *siats* aurki daiteke eta kasu gehienetan toponimoen osagai moduan agertzen da.

NTM XII. liburuan, Arbizuko toponimiaren atalean ondorengo iruzkina dator *Siatsa* toponimoari egokitua: "*Se denomina siats a un terreno húmedo y aguanoso*". Eta izen bereko IX. liburuan (1992, 50 or.), Altsasuko toponimia aztertzerakoan, *Mailazarsiat* (amaiera *siats* ahoskatua) toponimoari dagokionez, ondorengo iruzkina egin dute: "*Siats' es un genérico vasco corriente en Navarra en la Barranca y Urbasa, e incluso en zonas alejadas como Roncal, Salazar y Aezcoa. Designa zonas de hierba donde el agua de lluvia no filtra, encontrándose siempre empapadas, sin llegar a acumular capa de agua. Los 'siatses' son al parecer muy malos para el ganado, que enferma de comer su hierba. En el castellano de Améscoa se conserva la palabra como 'siache'.*"

Carasatorrek (1993, BB, 313) horrela dakar: "*Siyetsa = terreno manantío, muy húmedo*". Eta neuk ere (2004, 265): "*Siyets (Sakana) iz. Toki heze eta urtsua. Siets (XIV, 763; G-goi-nav); (BB, 313). Urdiainen siets. (Izag. 81; sietsa, sieslekuba el lugar pantanoso). Lugar muy húmedo y encharcado.*"

Arbizun (BB 468), bestalde: *Siyesta* (1882), *Siyaesta*, *Siaesta* (1921 castañal) eta *Siaseta* (1844 Cuentas Comunidad de Arañaz Arch. De E-A Leg 558). Aralarren ere bada *Siasbelceta* eta *Siasbelceta fuente de* toponimoak 1857an dokumentaturik eta baita Urbanen ere *Siasgain* eta *Siyatsa* (Carasatorre 1993, 557, 560). *Lizarraga Ergoieneko euskara* liburuan (2008, 423) ere ondorengo sarrera dago: "*siyets, siyesdeei, siyesdi: barriza!*".

Juan de Arin y Dorronsoro apezak "Toponimia del pueblo de Ataun" liburuan, hamar

aldiz *siats* izena duten toponimoak jaso zituen eta soilik hiru kasutan *sirats*, horietako bat (*Sigasandi o Sirasandi*) zalantzan

Modu ezberdinetan (*siats, siets, siyats, siyets, siras, sigas*) ageri da dokumentaturik orduan eta NTMn *siats* erabiltzen da modu ofizialean toponimiako generiko hau, baina badirudi 2019tik aurrera Euskaltzaindiako Onomastikako Batzordeak *sirats* aldagaia hobesten duela. Nire ustean, orain arte bezala *siats* erabili beharko litzateke edo bestela *sihats*, Sakana erdialdean ahoskatzen den ereduari (*siyets*) jarraituz, beste hitz batzuen kasuan gertatzen den bezala, *i + h + V → iyV* (*siyets* < *sihats*) bilakabidearen ondorio dela esan baitaiteke: *biyer* (bihar), *biyamun* (Dorrao) / *biyemun* (Arbizu), *Lizarragabengoa* (biharamun), *giyer* (gihar), *iyó* (eho > *iho*), *ziyetu* (zihatu), *biyurri* (bihurri), *biyurtu* (bihurtu), *liyo* (liho), *iyes* (ihes), *leiyo* (leiho), *niyuen* (nihoan), *ziyuen* (zihoan)... /y/-ren epentesiak jatorriko kontsonante mutuaren testigantza adierazten du.

Elhuyar hiztegian (online), *sirats* sarrerak, hiru adiera ditu, hirurak ala hirurak Zuberokoak: "1. (Z) placer. 'sirats handiarekin: con gran placer'. 2. (Z) Suerte, destino. 'sirats gaiztoa erori duk etxe horretara: la mala suerte ha caído sobre esa casa'. 3. (Z) intención. 'sirats gaiztoa dik horrek: ese tiene malas intenciones'." Eta Euskaltzaindiaren Hiztegia soilik aurreko bigarren adiera.

Garbi dago askoz ere aldi gehiagotan ageri dela *siats* edo *siyets* toponimiako generikoa dokumentatua. Eta kontsonante dardarkariarekin (/r/) ageri den bakar horietan, seguru asko, idazkari, notario, eskribau edo zena zelakoak susmoa harturik bi bokalen artean kontsonante bat falta zitzaioala generikoari eta, jakina, zein erorkorrage bokal artean kontsonante dardarkaria baino? Horrexegatik, nire ustean, bokal artean kontsonanteren bat jarri beharko balitzaio, Sakana Erdialdeko ereduari jarraituz, /h/ jarri beharko litzaiok.

## DUELA 25 URTE...

**Lanak santutegian**

Itxexure edo itajunen ondorioz Aralarko santutegian hezetasun handia zegoen. Ermitak konpontzeko premia zuen eta horri ekin zioten garagarrilean. Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea erakundea arduratu zen lanez. Inozentzio Aierbek esan zuenez, "orain 23 urte teiltua konpondu zutenetik itoginak izan ditugu, eta, ondorioz, haritzeko zorua erabat hondatuta dago". Teiltua berritu, berogailua eta harrizko zorua jarri behar zuten. Lanek 82 milioi pezeta (492.829,9 euro) balio zuten eta sei hilabete iraun zuten.





Ekintzailetzari buruz ikastetxe batean emandako tailerra. UTZITAKOIA

## Cederna Garalurrek 25 ekintzaile lagundu ditu

Aurtengo lehen seihilabetekoan lagundutako ekintzaileek ibarrean 16 enpresa martxan jarri dituzte

### SAKANA

Cederna Garalur elkarteak, bere ekintzaileak laguntzeko zerbitzuaren bidez, Sakanan 16 enpresaren sorreran lagundu du aurtengo, 25 pertsonari babesa eta aholkularitza emanez; haietatik 11 emakumezkoak ziren eta 14 gizonezkoak. Negozio berrien forma juridikoari dagokionez, Cederna Garalur elkartetik jakinarazi dutenez, "guztiak enpresaburu bakar edo sozietate irregular gisa eratu dira".

Susana Mendinueta Floresek esan duenez, "COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz ziurgabetasun egoera nagusi den arren, urtea oso positiboa izaten ari da abian jarritako ekimen ekintzaile berriei dagokionez, izan ere, aurreko urteetako seihilekoko zifrak gainditu baitira".

Cederna Garalurren ekintzailetzari laguntzeko zerbitzuak hastear diren enpresei aholkua

emateaz aparte, martxan diren enpresei ere zerbitzua eskaintzen die. Azken horiei dagokionez, lehen seihilekoan, 2 urtetik beherako antzintasuna duten 15 enpresari (9 emakumezko eta 6 gizonezko) eta 2 urte baino gehiago lanean ari diren 3 enpresari eman dio babesa eta aholkularitza (emakumezko 1 eta 2 gizonezko). Azkenik, Cederna Garalurrek jakinarazi du ekintzaile eta autonomoei zuzendutako sei tutoretza online eskaini dituela.

Cederna Garalur elkarteak Arbizuko industrialdean dagoen Utzuganen, Sakanako Garapen Zentroan, dauka egoitza. Astegunetan 08:00etatik 15:20ra, pasa daiteke egoitza. Harremanetan jartzeko 639 900 336 (Susana) telefonora hots egin edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) edo [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) e-postetara idatz daiteke.

## Santutegiaren ondarea eta historia ezagutzeko

Horretarako egin da Deierri etxearen beheko solairuan museo, udan publikora zabalduko dena

### UHARTE ARAKIL

Uhartearrek, "etxeok etxean zer duten jakiteko", Aralarko santutegiari ekialdean itsatsia dagoen Lakuntzetxe edo Deierri etxeok museo ezagutzeko aukera izan zuten larunbatean. Francisco Perez Gonzalez artzapezpikuak museo igandean bedainkatu zuen.

Museoak hainbat gune ditu. Sartu eta eskuinera, Europako mapa handi batean, kontinenteko erromesaldien ibilbideak eta zazpi santutegik osatzen duten San Migelen lerro sakratua edo San Migelen ezpata ikus daitezke. Barrurago San Miguelen irudiaren garapena nolakoa izan den erakusten da. Haren azpian gurutze limosnaria, santutegiko anaien etxe bakoitzean haien izenarekin duten dominetako batzuk, irudiak eta beste daude. Ondoko paretan gazteei zuzendutako ikus-entzunezko bat dago. Jerusalem XII. mendean joandako Sancha Xemeneizkoak Aralarri buruzko hainbat aipamen egiten ditu gurasoei idatzitako gutunean. Bukatzeko, ukimenezko bi pantaila handiren bidez erretaula sekula baino gertuago ikusi edo santutegiaren historian barnako garapena ezagutzeko aukera dago.



Pantailen bidez santutegiko historia ezagutu edo erretaula ikus daiteke.



Kontinenteko erromes bideak jasotzen dituen mapa.



Santutegiko esmalteko erretaularen erdian Nere, ama birjina haurrekin.

**Atez ate.**

Egünero herriz herri Amayako banatzaileak züre etxera gerturatzen dira produktu freskoak emateko, egin berriak. Goza ditzazun, bere zapora eta testura bereziarekin.

**Amaya**  
OGITEGIA  
egiten 1964-OTZUK  
[amayaokindegia.eus](http://amayaokindegia.eus)



# Plazaolak badu Estrategia Plana

Mendialdea eskualdea hartzen du Plazaola turismo partzuergoak egindako plangintzak. Hiru lan ildo ditu: zikloturismoa, mendi ibilbideak eta natura eta ondarea. 2022-2030 aldirako plangintza irekia da, urtero aztertu eta baloratuko dutena

ARAKIL / IRURTZUN

Arakilgo eta Irurtzungo Udalak kide dituen Plazaola turismo partzuergoak 2022-2030 Estrategia Plana onartu zuen udaberri bukaeran. Han hiru lan ildo jaso dituzte: zikloturismoa, mendi ibilbideak eta natura eta ondarea. Ildo bakoitzak bere ekintza plan zehatza du. Partzuergoko gerente Gustavo Ortiz de Barron Marroquinek azaldu duenez, "du darik gabe, zikloturismoa eta bide berdearen azpiegitura berez nahiko errotuta dago". Ildo horren inguruan bestelakoak ere badaudela aipatu du: Lekunberriko mendi bizikleta zirkuitua edo errepideko ziklismoa, "eta gehiago landu dezakegu". Baina partzuergoan ikusten zuten lurraldea ez zela bakarrik bide berdea eta zikloturismoa. "Horretaz aparte, gure lurraldeak asko gehiagorako ematen du turismoarendako, bisitariei eta eskualdeko herritarrei erakusteko", esan du gerenteak.

Estrategian eta plana egiteko parte hartze prozesuan asko baloratu dute eskualdeko paisaia, ondarea, historia, etnografia, hizkuntza. Horregatik, "ondarea sustatzeko lan ildo indartsu bat sortu da". Bestalde, Mendialdeko paisaia, mendi eta ibilbideak ondarearekin zeharkakotasunez sustatu beharra dagoela jaso dute planean. Horrekin batera, Ortiz de Barronek azaldu du natura ildoa, Aralarrek "parte garrantzitsua" duela. Eta gogora ekarri du hainbat eragilek sinatutako akordioa mendia erantzukizunez bisitatzea lortu nahi duena. "Aralarrera jende asko etortzen da, era onean sustatu behar dugu. Jendeak ezagutzea ez dela ohiko turismoa toki bat; eskualdeko ondarea eta natura ezagutzeko eta bertako jendearekin eta kulturarekin harremanetan egoteko tokia da".

Europako Eurovelo 1 bizikleta ibilbidea (Norvegia eta Portugal



Plazaola turismo partzuergoko gerente Gustavo Ortiz de Barron Marroquin.

## GOBERNUAK BULTZATUTA, PLAZAOLA, ULTZAMA ETA SAKANA TURISMO ESKUALDEA SORTU DA

arteko ibilbidea, Iruñean barna doana) haiendako "estrategikoa" dela esan du Ortiz de Barronek, "horrek, turistikoki, beste dimentsio batera eramaten baitzaitu". Ederbidea bizikleta ibilbidea zabaltzearen ondorioz Belgika edo Herbeeretatik jende gehiago etortzen dela nabaritu dute Lekunberriko turismo bulegoan. "Gero eta herritar gehiago etortzen dira bizikletak eta Eurovelok bultzatuta. Horretan arreta jarri behar da, kanpotik etortzen zaigun merkatu horri harrera egiteko, ahalik eta gehien hona etor dadin eta egonaldi luzeak egin ditzaten". Baina "jakinda argi eta garbi zeintzuk diren gure gertuko merkatuak. Plangintza horietara ere bideratuta dago". Gerenteak azpimarratu duenez, "guretako askoz estrategikoa da Sakanako bizikleta bidea, Arabarekin eta Do-

nejakue bidearekin beste lotura bat lortuko dugulako".

### Prozesua

Mendialdeko eragileen parte hartze prozesu "oparo eta emankorarekin" hasi zen 2021ean. "Deialdiak ahalik eta zabalena egin genituen, turismoa oso transbertsala delako", azaldu du gerenteak. Larraunen, Basaburuan eta Leitzaun saio ireki bana antolatu zituzten eta jende asko gonbidatu zituzten, nahiko ongi atera zen, jende askok parte hartu zuen". Sakana, Tolosaldea eta Goierriko esperientzien berri ere jaso zuten prozesu horretan. Baita Cederna Garalurrek lehenengo sektorearekin egindako lana ere, "lehenengo sektorea nahiko inportantea da eta oso lotuta dago, gero eta gehiago, turismoarekin". Ondu zuten dokumentua Nafarroako Gobernuaren irizpideekin uztartu zuten. Gaineratu duenez, Nafarroako Gobernuak bultzatuta, Plazaola, Ultzama eta Sakana turismo eskualdea sortu da. "Guztion artean turismo helmuga bateratua sortzea da helburua orain. Bakoitza bere nortasunarekin eta bere produktuekin".



Eraso matxisten kontrako protokoloaren prestakuntza saioa. @ITAI\_A\_SAKANA

## Emakumeen kontrako indarkeria moten errealitatea ezagutzeko

Analisi osatuagoa izateko eta horri aurre egiteko bitartekoak jartzeko Itaiak inkesta zabaldu du

SAKANA

Itaiako kideek azaldu dutenez, "indarkeria matxistak forma asko har ditzake, eta emakume langileok egunerokoan hainbat indarkeria forma pairatzen ditugu eta egungo krisi testuinguruan indarkeria are gehiago normalizatzen ari da". Horregatik, Sakanaren indarkeria matxistaren adierazpenen errealitatearen gaineko analisi osatuago bat egiteko inkesta (<https://labur.eus/OYGO1>) zabaldu du Itaiak. Hura anonimoki erantzuteko epea igandean despedituko da. Haren emaitzak "errealitate horri aurre egiteko bitartekoak martxan jartzeko" baliogarria izanen zaie Itaiakoei.

Galdetegia erantzun nahi duenak adina, generoa eta herria zein dituen zehaztu beharko du lehenik. Ondoren, hainbat indarkeria matxistaren espresioen inguruko aukerak markatu beharko ditu. Ikastetxea, sare sozialak, lagun taldea, festa giroa, bikote kidea edo harreman afektibo-sexualak eta lana esparruetan izan daitezkeen hainbat egoera zehaztu dituzte eta bizi izandakoak markatzeko eskatzen dute Itaiakoei. Akaberan testigantza emateko aukera dago ere.

### Protokoloa

Herrietako festak direla eta Itaiakoei "erasoei erantzuteko zein horien prebentziorako tresnak barnebiltzen dituen protokoloa martxan jarri" du Itaiak, "ukaezina baita egun festetan jai eredu kapitalista erreproduzitzen

dugula eta horrek berekin dakarrela biolentzia harremanen agerpena, esaterako, biolentzia matxista". Azaldu dutenez, "ideologia matxistak bultzaturik, jai giroan nagusi den sozialazio ereduak emakumea mespretxatzeko, erasotzeko, bortxatzeko edota erailtzeko aurrebaldintzak ezartzen ditu". Ziurtatu dutenez, "jada sozialki, politikoki eta ekonomikoki debalatu dagoen subjektua, gizatasuna gogorki kentzea ahalbidetzen du biolentzia harreman horien erreproduzizioak. Emakume langileon zapalkuntza betikotuz eta gure askapenerako oztopo bilakatuz".

Gaiarekiko "kontzientziazio falta" ikusten dute. Eta erakundeen protokoloetan "hutsune eta gabeziak". Horregatik, beharrezkoa jotzen dute "indarkeria betiketoz duen errealitatea bere osotasunean aztertzea eta hura gaitzera begira baldintzak jartzeko, arreta asistentzialetan erori gabe". Itaiako kideen iritziz, "langileon arteko elkar-tasunean oinarrituriko antolakuntza urgentziazkoa da, zeinetan denok dugun erantzukizuna eta denok jarri beharra dugun gure aletxo indarkeria matxistari aurre egiteko eta gure ongizatea bermatzeko".

Itaiako kideek azpimarratu dutenez "protokoloa antolakuntza integral baten parte da eta jai egun puntual horietan ez ezik, urtean zehar ere indarkeria matxistari aurre egiteko lan egiten dugu". Indarkeria matxistari aurre egitera deitu dute.





Aitziber Da Costa Taboada eta Cristina Matias Tapia Intxostiapunta gazte gunean.

# "Esperientzia eta erabaki onena izan da berriemailearena"

**CRISTINA MATIAS TAPIA ETA AITZIBER DA COSTA TABOADA BERRIEMAILEAK**  
Gazteria zerbitzuaren eta Intxostiapunta gazte gunearen berri eman dute ikasturtean, eta berriki Gazte Berriemaileen Iberiar Topaketan parte hartu dute

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU  
Altsasun gazteei zuzendutako ekimenen berri beraien ikastetxean ematen dutenak gazte berriemaileak dira. Aitziber Da Costa Taboada eta Cristina Matias Tapia Altsasu Bigarren Hezikuntzako institutuan aritu dira berriemaile lanetan bigarren urtez. Horrek diploma eta diru sariaz aparte Malagako Mollina herrian egin den Gazteen berriemaileen iberiar topaketan parte hartzeko aukera eman zien garagarriaren 26tik 30era. Erki-

dego bakoitzeko hamarna berriemaile joan ziren eta Portugalgo 20, guztira 250 elkartu ziren.  
**Berriemaile, gelaz gela zoazte?**  
**Cristina.** Bai. DBHko 1. mailara joaten gara, gazte gunera gehien etortzen direnak direlako. In-

**"PROPOSATU GENUEN BESTE TOPAKETA LUZEAGO BAT EGITEA, ESPERIENTZIA GEHIAGO IZATEKO"**

txostiapuntara estreinakoz etortzen dira. Lehen hiru mailetan daude aukera gehien. 4 eta Batxilergoan, dagoeneko ez.  
**Aitziber.** Batxilergokoendako gauzak badaude. Iortian haiendako jarduera bat egon zen eta hura azaltzera joan ginen. Eta batzuk agertu ziren.  
C. Klase tartetean joaten gara eta klasea galtzen duzu, baina ondorioa da gero etxeko lan gehiago dituzula. Eta begiratu behar da joan behar zaren ikasgelak azterketarik ba ote duen.

A. Gerta daiteke gutakoren bat ikasgairaren batean ongi ez ibiltzea, beraz, ezin dut ikasgai horren klaserik galdu. Batzuetan irakasleek ez zekiten zer zen berriemaileena eta hura azaltzen denbora gehiago galtzen genuen.

**Zer moduz jendaurrean hitz egiten?**

C. Hasieran urduritasuna, baina, ondoren, hobe egin dugu.

**Sare soziala erabiltzen dituzue?**

A. Intxostiapuntak Instagram kontua dauka eta hor bere jardueren berri ematen du. Guk gure history-etara igotzen dugu.

**Bilerarik?**

C. Asteazkenero ordu bateko bilera genuen Intxostiapuntan ikastetxe guztietako berriemaileek. Zer esan behar dugun, zer jarduera dauden azaltzen digute eta, ondoren, guk ikastetxeko oholtzan kartelak jartzen ditugu.

**Zer ikasi duzue berriemaile izanik?**

A. Talde lana, jendaurrean hitz egitean urduritasuna kentzea.

C. Batzuetan trabatu egiten zara eta berak badakienez zer esan behar duzun, esaten du. Gauza txiki oso garrantzitsua da.

**Sari bikoitza izan duzue.**

A. Diploma eta 200 euroko beka eman zizkiguten ikasturte bukaeran. Eta aurten bidaia.

**Zer egin zenuten topaketan?**

A. Goizez aktibitateak. Taldetan banatu gintuzten eta berriemaile lana nola egiten genuen azaldu genuen, besteen ideiak jaso eta esperientzien berri izateko. Konturatu ginen Nafarrek bakarrik dugula beka. Ez Portugalen ez gainontzeko erkidegoetan ez dute. Nafarroan batzuk diruagatik izena ematen dute. Lan egin nahi dutelako ematen dute izena.

C. Zentro batzuetan ingurumena babesten dute, beste batzuetan adineko pertsonen teknologiarekin laguntzen diete. Guk sexologiarena dugu. Hemen esaterako,

ingurumenarena egin daiteke. Kulturarteko gaua egin genuen.

A. Nik AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahulezia) egiteko izena eman nuen. Mehatxuetako bat komunikazio falta zen, teknikariek gauza bat egin eta guk horren berri ez izatea gerta daitekeelako. Horrela gehiagok izena emanen lukete.

C. Niretako jarduerak egunero berdinak ziren: zer da berriemaile... Aldatu beharko litzaiteke: zer egin ahal duzu hobetzeko? Baina ongi egon da. Azken egunean Malagara joan ginen eta plazaren erdian manifestazioa egin genuen. Denak borobil batean, karteekin. 17 eskaera zabaldu genituen: genero berdintasuna eta halakoak. Agur festa izan genuen ere.

**Lagunak egiteko aukerarik?**

C. Oso egun gutxi iruditzen zaizkit. Proposatu genuen beste topaketa luzeago bat egitea: esperientzia gehiago izateko, ideia gehiago hartzeko eta egun gehiago egoteko.

A. Gabonetan beste topaketa bat egitea nahiko genuke, jende bera elkartu eta harreman gehiago izateko. Erkidegoetako teknikoekin harremanetan gaude. Ez dakigu sortuko den.

**Altsasuko eta beste tokietako esperientziak...**

C. Egiten duguna berdina da baina modu desberdinean egiten dugu. Batzuk pankartak egiten dituzte, guk sare sozialak erabiltzen ditugu.

**Ikasitakoarekin zer egingen duzue?**

C. Ez dugu arazorik mundu guztiarekin partekatze.

A. Gure esperientzia eta erabaki onena izan da berriemaile izatea, eta bidaia horretara joatea.

C. Gauza polita eta dibertigarria da. Asko ikasten duzu. Merez du berriemaile izateak.



# FESTAK



**ARRUAZU** San Pedro basilizan egindako erromeriarekin hasi ziren Arruazuko San Pedroak. Zortzikoa, herri bazkariak, dantzaldiak, jaioren arruazuarrei zapia janzea... denetariko ospakizunak izan zituzten.



**UNANU** San Pedrotan etxez etxeko errondak, auzateak, dantzaldiak eta pilota jaialdia ez ziren falta izan.



**LIZARRAGABENGOA** Lizarragabengoan gustura ospatu zituzten San Pedroak. Etxez etxeko erronda jendetsuan giro ederra nagusitu zen eta adin guztietako herritarrek hartu zuten parte.



**URDIAIN** Jendetsuak eta giro bikainekoak izan dira aurtengo festak. San Pedroko erromeria eta egunero izan diren herri bazkari eta osteko errondekin ederki pasa dute urdiaindarrek.

▼ UZTAILAK 29

Udako  
*guaix*  
*berezia*

Zure negozioa hemen

KONTAKTUA  
📞 948 564 275 | 661 52 32 45  
✉ [publi@guaix.eus](mailto:publi@guaix.eus)



# Burujabetzaren alde aktibatzeak

Gure Eskuko kideen iritziz, horretarako balio izan zuen larunbatean Pirinioetako 300 tontor baino gehiago argizatzeak. Erabakitzekeo prozesu bat landu, adostu eta sustatzeko beharrezko adostasunak lortzeko lan egiteko konpromisoa hartu du

## SAKANA

Pirinioetako Bidea ekimenaren bidez autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko, katalanek eta euskal herritarrek 430 km-ko argi lerroa osatu zuten. Gure Eskuren bozeramaile Josu Etxaburuk eta Amalur Alvarezek "burujabetza osoaren alde" aktibatzekeo dei egin diete euskal herritar guztiei. Azaldu zuten, larunbateko erronka "herri gogoa hauspotzeko asmoz jarri genuen, eta uste dugu lortu dugula. Pirinioetako tontorretan jarri dugun argi bakoitza gure herriaren

burujabetza eta askatasunaren bidea argiztatu duen izar bat da. Erabakitzekeo eskubidearen argia piztuta dago".

Haien iritziz, "larunbatean, milaka herritarrok argi adierazi dugu badela giroa, baldintzak guk sortuko ditugula, eta herri hau anbizioz jokatzeko prest dagoela". Eskoziak bigarren erreferendumerako data zehaztu duela eta "Europatik olatu demokratizatzaile berri bat etor liteke eta igerian behar genuke olatua iristen denean" gaineratu dute.



Arakildar eta irurtzundarrek Alkurrutz mendia argiztatu zuten. GURE ESKU



Etxarriarrek argiztatu zuten mendietako bat. GURE ESKU



Bakaikuarrak eta altsasuarrak Gorramakil mendian. GURE ESKU



Olaztiarrak Huescako Estremera mendian. GURE ESKU

# Mikel Uncillaren zilarra eta Nahia Imazen brontzea

**TXIRRINDULARITZA** Nafarroako selekzioko txirrindulari etxarriarra junior mailako Espainiako Txirrindularitza Txapelketako txapeldunordea izan zen, gizonetzkoetan. Emakumezkoetan, Nahia Imaz hirugarren sailkatu zen erlojupekoan

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA

Asteburuan infantilen, kadeteen eta juniorren Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Valladoliden. Nafarroako selekzioarekin zenbait sakan-darrek hartu zuten parte. Junior mailako gizonetzkoen lasterketa-ko esprint estuan, Yago Agirre (Euskadi) gailendu zitzaion Mikel Unzilla etxarriarrari (2:54:18). Adrian Martinez 53. sartu zen eta Aimar Tadeo 64. Erlojupekoa Ibai Azanzak (Nafarroa) irabazi zuen (29:55). Mikel Unzilla zortzigarren sailkatu zen, 1:28ra, eta Aimar Tadeo 20., 2:46ra.

**Nahia Imaz, Europakoan**

Emakumezkoen juniorren lasterketa ere esprintean erabaki zen. Laura Ruiz (Kantabria) izan zen txapelduna (2:09:17) eta Nahia Imaz altsasuarra zazpigarren sartu zen. Erlojupekoan Eneritz Vadillo (Euskadi) gailendu zen (35:28), eta Nahia Imaz hirugarren izan zen (36:04). Altsasuarra Ana-



Nahia Imaz, eskuinean. Egunotan Anadian dago, Europako Txapelketan. FEDERAZIOA

dian (Portugal) dago egunotan, Europako Txirrindularitza Txapelketetan parte hartzen.

**Kadeteen taldekako dominak**

Kadeteetan ere esprintean erabaki ziren dominak. Gizonetzko-

tan Ruben Sanchezek (Madril) urrezkoa lortu zuen. Iker Gomez altsasuarra hamaikagarren sailkatu zen eta Ekain Imaz altsasuarra hamaseigarren. Emakumezkoetan Paula Ostiz (Nafarroa) helmugara bakar-bakarrik iritsi



Urdaingo Sariko podiuma. Iker Gomezek seigarren garaipena lortu zuen.

## Gomezzen eta Burundaren Urdiain

Asteartean jokaturako kadeteen IV. Urdiain Sarian, antolatzailea, Quesos Albeniz-Burunda taldea, protagonista izan zen. Iker Gomez altsasuarra irabazi zuen lasterketa eta mendiko saria, eta Quesos Albenizek talde onenaren saria jaso zuen.

zen. Leire Urtasun lakuntzarra 23. sailkatu zen, eta Ane Beltran de Heredia altsasuarra 28.

Gizonetzkoen kadeteen taldekako erlojupekoan Nafarroako selekzioa, Iker Gomezek, Ekain Imazek Aitor Igoak eta Sandro Abadiak osatutakoa, hirugarren sailkatu zen. Emakumezkoetan, Euskadiko selekzioa izan zen txapelduna, eta Irene Bonak, Leire Urtasunek, Marta Pelayok eta Ane Beltran de Herediak osaturako Nafarroa, laugarren sailkatu zen, 46 segundora.

**Infantilak**

Haurren mailan, Fran Alemanyk (Katalunia) irabazitako proban Luca Martinez lakuntzarra 57. sartu zen. Emakumezkoetan Lidia Castrok (Gaztela eta Leon) irabazitako proban Eider Mazkian altsasuarra 42. postuan eta bere taldekide Lucia Andueza altsasuarra 46. postuan sailkatu ziren. Ginkanan, gizonetzkoetan Luca Martinez 12. sailkatu zen (3:22) eta emakumezkoetan Lucia Andueza 34. (4:11) eta Eider Mazkian 37. (4:20).

## "Zilarrarekin oso pozik nago"

**MIKEL UNCILLA ALDASORO** TXIRRINDULARIA

Sakana Group-Aralar taldeko Mikel Uncilla Aldasoro txirrindulariak zilarrezko domina lortu zuen junior mailako Espainiako Txirrindularitza lasterketan.

**Erasoz betetako lasterketa izan zen juniorren Espainiako Txapelketa.**

Berez ez zen proba oso gogorra, baina gorabehera asko zituen eta adi egon beharra zegoen, erasoak etengabeokak zirelako. Bestalde, Valladoliden bero latza zegoen eta desgastea izugarria izan zen. Azkeneko kilometroetan ihes egin nuen Euskadiko Yago Agirrekin, baina atzetik zetozen hiru txirrindularik harrapatu gintuzten. Azkeneko bihurtun bigarren postuan nengoela sartu nintzen eta helmugara ere bigarren sartu nintzen, Yago Agirre txapeldunaren atzetik. Egia



NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

esan, oso pozik nago zilarrezko domina lortu izanagatik.

**Aurrean egotea espero zenuen?**

Ez nuen espero, baina lasterketan oso ongi sentitu nintzen.

**Ohi baino maila handiagoa zegoen?**

Bai, Espainiako txirrindulari onenak zeuden. Tropela ere urduri zegoen. Ohi baino urduritasun handiagoa zegoen.

**Denboraldia ongi hasi zenuen, Villatuertako eta Amorebietako garaipenekin, baina Lazkao mendin erori eta erradioan fisura batengatik lesionatuta egon zinen.**

Errekuperatzea kosta egin zait, baina gutxinaka lasterketen erritmoa hartzen ari naiz, eta hemendik aurrera hobeki aritza espero dut. Aimar Tadeo nire taldekideak

ere lepaiztaia apurtu zuen eta bi hilabete egon zen lesionatuta. Paretsu gaude, Aimar ere erritmoa hartzen ari da.

**Badirudi indartsuago itzuli zarela, Cendea de Galarren garaipena lortu eta Euskadiko Txapelketan, Nafarroako Erlojupekoan eta Gipuzkoako Itzulian bigarren izan zarela.**

Oraindik hobetzeko tarte dago, baina, egia esan, Gipuzkoako Itzulia oso ona izan zen. **Espainiako juniorren erlojupekoan zortzigarren sailkatu zinen.**

Proba ez nuela espreski prestatu kontuan hartuta, egindakoarekin kontentu nago.

**Nafarroako selekzioko Ibai Azanzak irabazi zuen erlojupekoa, aurtun zure arerio gogorra denak.**

Bai, hor gabiltza borrokan. Orain bertan bera da indartsuena (kar, kar...).

**Zein da hurrengo helburua?**

Asteburuan lasterketa dugu Araban, baina hurrengo helburu nagusia Nafarroako Itzulia izango da, zalantzarik gabe.



## Sakandarrak Sanferminetako herri kirol txapelketetan

**HERRI KIROLAK** Uztailaren 14ra bitartean Foru Plazan eguerdiro jokatu diren txapelketetan ordezkaritza dugu

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Sanferminetan herri kirolak bere txokoa du Iruñeko Foruen Plazan. Uztailaren 8tik 14ra, eguerdiro, makina bat erakustaldi eta Nafarroako Txapelketa jokatu dira, eta tartean sakanadarrek hartuko dute parte.

### Aitor Oiarbide, harriekin

Esaterako, uztailaren 9an, larunbata, Nafarroako Harri jasotze Txapelketa jokatu da. Hiru harri jasotzaile lehiatu dira: Albaro Zugarrondo, Oskar Aguas eta Aitor Oiarbide etxarriarra. Hiru harri desberdinekin -125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola- bi minutuko txandak izango dituzte.

### Razkin-Arratibel, trontzan

Uztailaren 11n, astelehena, Nafarroako kadeteen mailako Trontza Txapelketa egongo da jokoan. Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako Amaia Razkinek eta Joritz Arratibelek Oihan Biurrun-Asier Muñoz (Antsoain), Ander Aldunate-Oihan Santesteban (Antsoain), eta Julen Urrutia-Xabat Altugarai (Menditarrrak) bikoteak izango dituzte aurkari. Etzanda jarritako me-

troko enberrari 10 epai egitea izango da. Ondoren, herri kirol proba konbinatuen erakustaldia egingo dute Etxarri Aranazko Andra Mari, Araxes, Antsoain eta Igantzi taldeek.

### Mikel Lasarte, motozerran

Uztailaren 13an XXII. San Fermin Motozerra Txapelketa egonen da jokoan eta parte hartzaileen artean Mikel Lasarte dago, Sakanako Harri Jasotze Eskolako arduraduna, hain zuzen ere. Peio Kañamares eta Juan Asin izango ditu bidaide. 30 minutuko bi txandatan, bakoitzean irudi bat egin beharko dute.

### Aristizabal eta Oiarbide, aizkoran

Bukatzeke, uztailaren 14an, osteguna Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu da. Guztira bederatziz aizkolarik hartuko dute parte, tartean Aritz Oiarbide etxarriarrak eta Amets Aristizabal urdiaindarrak. Endika Goia, Jacinto Etxekonanea, Ibai Telletxea, Patxi Igoa, Julen Urrutia, Iker Goldarazena eta Eneko Pagola izango dituzte arerio. Bakoitzak bi kanaerdiko erdibitu beharko ditu.



ASPE

## Sanferminetako lehen txapela

**PILOTA** Sanferminetako Lau eta Erdiko txapela jantzi zuen atzo Joseba Ezkurdiak partida bikaina jokatu eta Unai Lasori 15 eta 22 irabazita. "Ikaragarri pozik nago. Egun hau beti gogoratuko dut. Torneo berezia da, eta frontoia beterik eta halako giroarekin ikustea... sufritzeak merezi izan du. Pribilegiatu bat naiz hau bizitzeagatik" aitortu zuen.

# Joseba Lasa eta Maitane Martiarena dira azkarrenak

**AUTOMOBILISMOA** Guztira 37 taldek hartu zuten parte IV. Irurtzun Arakil Rallysprintean. Arakil Motorsport eskuderiako lehen sailkatuak Alberto Osinaga eta Eduardo Ardaiz izan ziren eta lehen sakandarrak Sakanako Motorsporteko Ander Gurmino eta Asier Cruz

Irurtzun eta Arakil automobilismoaren bilgune izan ziren larunbatean. Guztira 37 talde animatu ziren Arakil Motorsport taldeak antolatutako IV. Irurtzun Arakil Rallysprintean aritzera. Eguraldia eguzkitsuarekin, zein gurgil erabili ez zuten zalantzarik izan. Irurtzunge udaletxearen aurreko plazan bildu ziren autoak, eta banaka irteera puntura hurbiltzen joan ziren. Irurtzundik abiatuta Zuarrarrate igotzea zuten erronka, hiru aldiz. Zale ugari bildu zen ikuskizunaz gozatzerara.

Rallysprintean parte hartu zuten 37 taldeetatik 26k lortu zuten proba bukatzea. Azkarrenak Ioar Motor Sport taldeko Joseba Lasa pilotua eta Maitane Martiarena kopilotua (BMW M3 E36) izan ziren, eremuaren hiru pasadak 22 minututan eginez (22:33.700). Arakil Motorsport taldeko lehen sailkatuak Alberto Osinaga eta Eduardo Ardaiz (BMW E30) izan ziren (24:16.700),



Bukaeran partaideek talde argazkia egin zuten. NAFARROAKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

sailkapenean seigarren. Sakanako Motorsport taldeko Ander Gurmino eta Asier Cruz (Renault Clio Sport) hamalagarren sailkatu ziren (26:00.400), eta Iker Askargorta eta Iker Zeberio (Opel Astra GSI) hamabosgarren

(26:09.200). Bestalde, Iñigo Galarza kopilotu iturmendiarra Maillerreka Motorsporteko Alvaro Gutierrez pilotuarekin aritu zen (Citroen Saxo VTS), eta hemezortzigarren postuan sailkatu ziren (39:29.00).



## Futbol campuseko lehen txanda

**FUTBOLA** Astelehenean hasi zen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udarako antolatutako futbol campusaren lehen txanda, Dantzalekun. Aitor Lara eta Maalen Beraza monitorean aginduetara futbolera trebatzen ari dira izena eman

duen 10, 11 eta 12 urte dituzten 22 neska-mutikoak, 10:00etatik 13:00etara, gustura. Gaur, ostirala, despedituko da lehen txanda, eta datorren astean hasiko da bigarrena, 13 eta 15 urte artean dituzten gazteena.

# "Irurtzunek kirolarekin duen lotura berezia jaso nahi izan dut"

**MANUEL IZNAOLA GÓMEZ** IRURTZUNGO ATAKONDOAKO SOIN HEZIKETA IRAKASLEA  
Manuel Iznolak Atakondoarekin lotura duten 53 kirolariren bizipenak eta kirol balioak jaso ditu 'Irurtzun eta Atakondoa, Kirol haziak eta fruituak Bi Ahizpen oinetan' liburuan

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN  
Manuel Iznola Gomez (1974, Jaen) aurpegi oso ezaguna da Irurtzunen, Arakilen eta inguruko bailaratan. Sortzez jaendarra, Nafarroan irakaskuntza oposizioak gainditu eta zenbait ikastetxetan soin heziketa irakasle izan eta gero, Atakondoa ikastetxean lortu zuen behin betiko plaza eta Irurtzunen hamahiru urte daramatza A eredu soin heziketa irakasle. Irurtzunen, Ermitagañan eta Sanduzelain Kin-Ball izeneko kirol kooperatiboa sustatzeagatik da ezaguna. Irurtzunen eta inguruetan dauden eta egon ziren kirolari profesional kopuruarekin txundituta, "Irurtzun eta Atakondoa, Kirol haziak eta fruituak Bi Ahizpen oinetan" izeneko liburua idatzi du (Eunsa argitaletxea, agapea.com), kirolari horiei aitortza egin eta arrakastarako bidean izan zuten kirol espiritua eta kiroltasuna agerian jartzeko. Ekainaren 20an Irurtzunen aurkeztu zuen harreara ona izan duen liburua.

**HARRIDURA**  
**Zerk bulkatu zintuen aurkeztu berri duzun liburua idaztera?**  
Irurtzun izena lehenengoz 1988an entzun nuen. 14 urte nituen, Jaenen bizi nintzen eta Tourra ikusten ari nintzen. Reynolds taldeko Perico Delgado bigarren sailkatu zen etapa horretan, eta lideraren maillot horia jantzi zuen.

Pedro Gonzalez esatariak behin baino gehiagotan aipatu zuen Reynolds Irurtzungo taldea zela. Duela 13 urte behin betiko irakasle plaza Irurtzunen atera nuenean, Atakondoara iritsi eta nire kide eta D eredu soin heziketa irakasle Xabi Lizeagak harrera bikaina egin zidan eta Irurtzunen jaio zen Reynolds txirrindularitza taldearen historia kontatu zidan. Gaztetxoa nintzela Tourra ikusi nueneko egun hura oroitu nuen. Ez Reynolds bakarrik, lehen mailako Xota areto futbol taldea Irurtzungo zela jabetu nintzen, Julen Martija pilotaria ezagutu nuen, Jose Javier Zabaleta Atakondoako ikaslea izan zela aipatu zidaten, Aitor Garmendia Atakondoako gurasoa Miguel Indurainen taldekidea zela jakin nuen, Jorge Nagore pilotari ohia eta Txomin Nagore Osasuna, Atletico de Madrid eta Athletic taldeetako futbolari ohia ezagutu nituen, Atakondoako gurasoak biak, Nora Ruiz gurasoa, Betis futbol 11-ko jokalaria izan zena... eta txundituta geratu nintzen. Jaendik nator, eta bertan oso kirolari gutxik lortu izan dute lehen mailako kirolari profesionalak izatea. Horregatik, Irurtzungoa harrigarria iruditu zitzaidan. Ez zela kasualitate hutsa pentsatu nuen, zerbait gehiago zegoela. Kontatzeko istorio oso politak zirela iruditu zitzaidan, nork bere mugak gainditzeko istorioak

zirelako, eta istorio horiek biltzea eta jendeak horren berri izatea ongi legokeela otu zitzaidan. Sentsazioa dudalako Irurtzunen ez dela nahikoa baloratzen herriko kirol iragana, ezta gaur egun gertu aktibo eta hurbil ditugun kirolariak ere. **Sakanan lehen mailako kirolari eta teknikari asko daude eta egon izan dira. Agian haiek hurbil ikusten ohituta gaude, baina kanpotarrek askotan aipatzen dute harrigarria dela halako eremu txiki batean horrenbeste kirolari egotea.** Zalantzarik gabe. Nire belaunaldiko jendea gaizki ohituta dago Irurtzunen, kirolari puska horiek ikustea ohituta daudelako eta bere garaian baloratu zituztelako, baina gazte jendeak euren berri ez izateak kezkatzen nau. Eta horrek eraman nau kirolari horien testigantzak jaso eta aurkeztu berri dudana liburua idaztera. Jendea Irurtzunen eta inguruetan dagoen kirol historiaz kontziente izateko.

**53 KIROLARI**  
**Horrenbeste historia... nonbaitetik hasi beharko zinen.**  
Lehenengo arazoa informazioa mugatzea izan zen, hainbeste kirolari baitziren! Garai hartan Nafarroako Kirol Institutuko zuzendaria zen Ruben Goñi Atakondoako gurasoari nire egitasmoaren berri eman nionean -liburua eta ikus entzunezkoa egin nahi nituen, Informe Robinson

antzeko bat-, berak esan zidan egin behar nuen lehendabiziko gauza informazioa mugatzea zela. Eta orduan konturatu nintzen kirolari askoren arteko lotura Atakondoako ikastetxea zela. Askok Atakondoako ikasleak, ikasle ohiak, gurasoak... zirela. Horrela, Atakondoarekin lotura duten 53 kirolari detektatu nituen eta haiek aipatu ditut liburuan. Ikastetxearendako polita da, bitxia delako. Eta beste bitxikeria bat da gizonen eta emakumezkoen proportzioa ia parekoa dela; hori datu garrantzitsua da. **Nola landu duzu liburua? Kirolari horien lorpenak jaso dituzu?**  
Ez bereziki. Kirolari horiek izan zituzten eta dituzten balioetan zentratu naiz euren lorpenetan baino gehiago. Euren kirol munduan aurrera egiteko sostengatu ziren balioak aintzat hartu ditut, zailtasunak zituztenez -lesioak, istripuak, arazoak...-aurrera egitera bulkatu zituztenak. Niretako hori da garrantzitsuenak. Bestalde, La Peluso txirrindularitza proba ere aipatu dut eta Iratxo mendi elkarte baita ere.

**KIROL ESPIRITUA, OINARRIA**  
**53 kirolari hauen ibilbidea jasotzeko elkarrizketa eta ikerketa lan handia egongo da atzetik.**  
Bai, elkarrizketa asko daude atzean, baina azkenean hautaketa egin behar duzu, bestela gehiegizkoa litzateke. Bitxiak diren pasadizoak hautatu ditut, pasarte bereziak, gazteen arreta pizten dutenak, liburua irakurtzeko erraza eta eroso izan dadin, eta gazteek transmititu nahi dudana mezua jaso dezaten: pertsona hauek dituzten kirol balioak zein garrantzitsuak diren, hain zuzen ere. Hau da, kirola egin dezatela eta kirolean oinarritu edo sostengatu daitezela bizimodu sanoago bat izateko.

**"IRURTZUNGOA HARRIGARRIA IRUDITU ZITZAIKAN. EZ ZELA KASUALITATE HUTSA JABETU NINTZEN"**

**"SENTEZAZIOA DUT IRURTZUNEN BERTAKO KIROL IRAGANA EZ DELA NAHIKOA BALORATZEN"**

**Ez da kirola ikusteko modu ohikoa.**  
Guztiok, lehenago edo geroago, arazoak ditugu gure egunerokoan: gaixotasunak, bestelako arazoak... eta arazo horiei aurre egiteko guztiok kirol-espirtua izan behar dugu gure bizitzan, edozein zailtasunen aurrean hobeto erantzun dugulako. Juan Carlos Unzué etortzen zait gogora. Eredu bikaina iruditzen zait. Une honetan kirolari hobe dela iruditzen zait bere garaian Osasunako edo Barçako atezaina zenean baino. Orain bere garaian kirolarekin barneratutako kirol-espirtu hori erakusten ari da. ELA gaixotasun larri eta gogorrari nola aurre egiten dion ikustea ikusgarria da; gaixotasuna gizarteratzen ari da ELA gaixoen bizi baldintzak hobetzeko. Txalotzekoa da. Heine handi batean, liburuarekin balio hori zabaldu nahi dut: arazoak sortzen direnean kirol balioetan sostengatzea, borrokatzea eta aurrera egiteko.

**Zenbat denbora behar izan duzu liburua idazteko?**  
2016an hasi nintzen informazioa jasotzen, baina ez nuen idazten hasteko une egokia aurkitzen, pandemia iritsi zenera arte. Orduan hasi nintzen. Konfinatu gintuztenean egunaren zati bat eskolarendako zen, beste zati bat kirolerako eta gainontzekoa idazteko. Nuen informazioa txukuntzen eta testuari forma ematen hasi nintzen. Une horretan ere emaztea minbiziaz gaixotu zen, eta liburua idaztea barrenak askatzeko modu bat izan zen. Liburuan zentratu nintzen, ihesbidea baitzen. Etxean genuen arazoa gainditzeko lagundu ninduen psikologikoki. 2020ko Eguerberrietarako bukatu nuen liburua, baina orduan, egia esan, ez nuen askoz gehiagorako adina animorik.

**Urte eta erdi geroago argitaratu duzu.**  
Goizeder Lamarianoren kontakutua pasa zidaten eta berarekin harremanetan jarri nintzen. Liburua irakurri, eta gustatu zitzaion. Aukerak ikusi zitzaion. Bera da nire literatura agentea. Lanean hasi zen, hainbat argitaletzek interesa azaldu zuten eta azkenean Eunsa argitaletxearekin argitaratu dugu liburua, proiektuan interes gehiena izan zuelako. Baina pandemiagatik eratorritako arazoengatik, inprentek duten paper falta, esaterako, atzeratu egin da.





Manuel Iznola Gómez bere familiarekin, liburu Irurtzongo Kultur Etxean aurkeztu zuenean. UTZITAKOA

### Zer iruditzen zaizu liburuaren edizioa? Gustuko duzu?

Bai, itxura polita du. Itziar Matxain argazkilaria irurtzundarrak egin ditu argazkiak eta horrek ilusio berezia eragin dit. Azala polita da, Itziarren zenbait argazkiren muntaia da. Argazkiak egoteak liburuaren arintzen du, irakurgarriago egiten du, eta formatuaren aldetik ere irakurteraza da. Nik nahi dudana da liburuaren eskuragarria izatea. Hau da, jende nagusiak irakurtzeko modukoa izatea, garai bateko kirolariak eta bizipenak oroitu ditzaten; gure kintadetakoak irakurtzeko modukoa izatea, kirolera berriro lotu eta ilusio-natu daitezen; eta gazteendako modukoa izatea, kirolariak estralurtar gisa ikus ez ditzaten, gertukoak baizik, eta eurek ere, nahi izanez gero, kirolariak izatea posible dutela senti dezaten. Irurtzunen argi ikusi baita kirolari profesionala izatera hel daitekeela. Horretarako, jakina, agian babesletza eskatu beharko dute, adibidez, Lacturale izan daiteke babesletzaren erakusle-tako bat, eta Guaixeri difusioa eska diezaioke. Guaixek kirolariaren ahal dion difusioak azkenean komunitate guztiaren onura sortuko duelako. Mezua ikastetxetara zabaltzea nahiko nuke, Irurtzunek kirolarekin duen lotura horren berri izan dezaten.

### Badirudi gaur egun jende guztiak kirola egiten duela.

Gimnasioetara doan jende kopuruak gora egin du. Elite mailako kirolean emakumezkoen kirolak asko hobetu du. Izugarri. Baina kirol eskoletan neskek 12-14 urte betetzen dituztenean askok talde kirolak uzten dituzte. Ez dakit zergatik. Esan nahi dudana da gauza batzuk hobetu direla eta beste batzuk ez. Gure garaian ez zegoen telefono mugikorrik eta telebistan soilik bi kanal genituen. La 2-en denetarikoa kirolak eskaintzen zituzten: eskubaloia, hockeya, areto futbola, igeriketa, errugbia... eta kirolaren aldetik aberatsagoak ginen. Aldiz, gaur egun neska-mutiko askok soilik futbola jarraitzen dute, eta sarritan futbolarien bizitza pribatua jarraitzen dute gehiago kirola baino. Eta jende askok jotzen du gimnasia, baina askok estetika edo gehiegizko pisuak bulkatuta, ez kirola egitearen onuragatik.

### Kirola egitearen modua ere aldatu omen da.

Askok kirola etengabeko lehia bezala hartzen dute, muturrera eramaten dutena. Nire ustetan, gehiegizko lehiakortasuna dago. Sakanako Ibilaldia da horren adibide bat. Mendi martxa bat da, eta askok korrika egiten dute, ez doaz kirola egitera eta mendi txangoaz gozatzera. Kirolak lehiakortasun handia sortzen du, hori

horrela da, eta horregatik, kirola ongi ulertu behar da. Gazteek bereziki. Kirola osasuna hobetzeko, ongi pasatzeko eta aisialdi hobea izateko da. Kirolak ez zaitu gainontzekoekin edo zure buruarekin ozpintzera edo haserretzera bulkatu behar. Ez dizu bestelako estresik sortu behar. Estresak eta arazoak bakarrik etortzen dira, ez ditugu bilatu behar. Eta hau gazteekin landu beharreko kontua da, bereziki. Gazte batzuk, esaterako, kirola eginezina den zerbait bezala ikusten dute, oso lehiakorrak diren eta topera dauden kirolariekin alderatuz gero eurek ezinezkoa ikusten dutelako. Eta hori ez da horrela. Kirola oso ona da, baina gutxika hasi behar da. Egunero zerbait entrenatu. Gutxika hobetzen zoaz eta onurak sentitzen dituzu. Baina aparteko helbururik jarri gabe eta inorekin alderatu gabe. Ez dugu inorekin alderatu behar; zorian suak izan behar dugu. Eta nire liburuarekin ideia hori zabaldu nahi dut, kirol-espirtua izan behar dugula, hau da, kirolarekin gozatu behar dugula eta kirolak gure bizimoduan lagundu behar digula. Lehenago edo geroago kirolean sostengatuko baikara egunerokoan sortzen diren zailtasunei aurre egiteko.

**Liburu iruñean eta Irurtzunen aurkeztu duzu. Nolako harrera izan du?**

Harrera ona izan du, baina aurkeztu berria da eta jende asko oraindik ez du irakurtzeko tarterik izan. Liburuaren protagonisten iritzia jasotzeko desiotan nago. Aurkezpena ikasle ohiak gerturatu ziren, gurasoak, ikasleak... eta askori liburuaren sinatu nien. Oso eskertuta nago. Liburuaren Irurtzongo Estankoa dago salgai, Iruñeko La muga liburudenda, edozein liburu dendetan, eskatuta, edo argitaletxearen webgunean.

### Liburu gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu duzu.

Gaztelaniaz idatzi nuen, baina argi nuen euskaraz ere argitaratu beharra zegoela eta Sakanako Mankomunitatera jo nuen laguntza eska. Maite Iparragirrek itzuli du, lan ordainezina eginez. Oso eskertuta nago.

### "KIROLARI HORIEN KIROL BALIOETAN OINARRITU NAIZ GEHIAGO EUREN LORPENETAN BAINO"

### "KIROL-ESPIRITUA BADUGU, EDOZEIN ZAILTASUNEN AURREAN HOBE ERANTZUNGO DUGU"

### ESKAITZA ZABALA

#### Liburuaren pertsona askori eskaini diezu.

Etxekoei eta lagunez gain, kirolaren alde lan itzela egin zuten eta zenduta dauden zenbait irurtzundarrei eskaini diet: Legarra anaiak, Peio Alzueta eta Jose Antonio Martinez "El Chapas", esaterako. Baita zendutako lagun batzuei eta senitarteko bati eta 30 urtez Atakondoako ikastetxeko atezaina izan zen Patxi Moronori, zendutakoa. Minbizia eta gaixotasun larriak dituzten gaixok gogoan izan ditut, tartean minbiziaz zendu ziren bi ikasle, Murillo del Frutoko Adam eta Atakondoako ikaslea zen Aitziber Ganboa, Itsasokoa. Izugarri ditut gogoan, niretako inspirazio iturri dira, arazoei aurre egiteko adibide. Adamen eta Aitziberren oroimenez maratoi erdi bat egiteko erronka jarri nion nire buruari, eta lortu nuen. Ez nuen nire burua maratoi erdi bat ikusteko gai ikusten, baina gutxika entrenatzen hasita, lortu nuen, minbiziaren elkartearen aldeko Adanoren kamiseta jantzita nuela. Liburu hau ere euren dako omenaldia da. Eta hortik ere beste proiektu bat sortu zait.

### PROIEKTU BERRIAZ

#### Kirolarekin lotuta al dago?

Bai. Minbizia, fibromialgia, ELA eta antzeko gaixotasunak dituzten pertsonendako kirol zentro bat egiteko proiektua da, gimnasioa, igerileku estalia, erabilera anitzeko gela eta garrantzitsuena, kirol medikuntzan aditua den medikua, fisioterapeuta, nutrizionista, psikologoa eta kirol monitoria izango dituen. Emaztea gaixotu zenean pisu asko galdu zuen eta ez zuen indarririk. Gimnasioan hasi ginen, baina ohiko erabiltzaileen ondoan kikitzen zen. Baina, aldi berean, egiten zuen kirol gutxi hori bere osasunarendako oso ona zen. Gaixok, kirola egiteaz gain, elikadura zaindu behar dute, fisioterapeuta behar dute, psikologoa... Granadan halako proiektu bat aurrera eraman dute eta harrera bikaina izan du. Egitasmoa minbiziaren, fibromialgiaren eta ELA eta antzeko gaixotasunak laguntzen dituzten fundazio eta elkarteetan aurkezten ari naiz, ea guztien artean egingarria ikusten den. Tamalez geroz eta gehiago diren gaixo hauendako proiektu eder-rra litzatekeelako.



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 8

**ITURMENDI Folkirrika I. Balfolk jaialdia.** Musika eta dantza ikastaroak, eta kontzertuak.  
18:00 Balfolk ikastaroa.  
20:00 DiaTao taldea.  
21:45 Grand Balthazar taldea.  
23:15 Klandestinotarrak akustikoan.  
00:00 JAM.  
Plazan.

## LARUNBATA 9

**ITURMENDI Folkirrika I. Balfolk jaialdia.** Musika eta dantza ikastaroak, eta kontzertuak.  
10:00 Ikastaroak.  
20:00 Lolita Delmonteil Ayral taldea.  
21:45 Grand Balthazar taldea.  
23:15 Intxixv akustikoan.  
00:00 Garlic trio akustikoan.

00:45 JAM.  
Plazan.

## IGANDEA 10

**ITURMENDI Folkirrika I. Balfolk jaialdia.** Yoga ikastaroa eta bat-bateko ikastaro edota kontzertuak. Agurra.  
10:00etatik aurrera, plazan

**ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.**  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 11

**ALTSASU Osasungintza publikoa defendatu! elkarretaratzea.** Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak deituta.  
12:00etan, osasun etxearen aurrean.

## ASTEARTEA 12

**ALTSASU Gozamenez programaren Ur festa goxoa.**  
20:30 Aurkezpena.  
20:30-23:30 Bainua eta ur jokoak.  
21:30 Bokata eta alkoholik gabeko edaria, 3 eurotan  
22:00 Dantza ikuskizuna: Aniztasun funtzionalak dituzten Sakanako gazteak.  
23:00 Drag Show ikuskizuna.  
23:30 Txokolate iturria.  
Dantzaleku igerilekuetan.

## ASTEAZKENA 13


**ETXARRI ARANATZ Zinema kalean euskaraz.** Orkestra lurtarra filmaren emanaldia. Bakoitzak bere eserlekua eraman beharko du.  
22:00etan, ikastolaren patioan.

## OSTIRALA 15


**IRURTZUN Nabucco Operaren zuzeneko emanaldia.**  
20:45ean, kultur etxean.

EGURALDIA  
ASTEBURUAN


## Ostirala, 8




## Larunbata, 9



## Igandea, 10



## Astelehena, 11



**Zorion agurra!**  
Maite duzunari

[zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

## ZORION AGURRAK



**Markel**  
Zorionak Markel!!! Ia 9 urte einbettuzu ta mutil jator bat ta kirolari peto-petuat einda zaude, segi hola!! Helduen iyendien elkarrekin ospatuko degu. Muxu asko. Zuu famelikuek."





## IRAGARKI SAILKATUAK

## LEHIAKETA

**Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa:** Egileek lan bana aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai libre izan behar dute eta euskaraz idatziak izan behar dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabek. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso-lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu [www.pamplonacultura.es](http://www.pamplonacultura.es) web orrian da goen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

## IKASTAROA

**Intiak antolatutako nekazaritza eta abeltzaintza hasteko ikastaroan izen emateko epea zabalik:** Sektorean profesionalki hasi behar dutenek beharrezko trebakuntza lortzeko helburuarekin egiten da. Gazteei zuzendutako ikastaroa da, formatu erdipresentziallean, 200 ordukoa izango da eta abuztuaren hasten da. Izen emateko epea uztailaren 29an amaitzen da. Interesa baduzu deitu 948 013 058 tfnora 8:30tik 14:00etara ordutegian. Ikastaroak 425 euroko kostua du.

## OHARRAK

**Lakuntzako festetan 2021 urtean jaiotako haurren harreraren prestaketa:** Lakuntzako Udalak festen hasieran joan den urtean jaiotako umei harrera egiten die zapi bana oparitu. Erroldatuta ez dagoen haurren batek zapi jaso nahi badu udaletxean izena eman behar du. Izen ematea garilaren 22an amaitzen da.

**Nafarroako Torturatuaren Sarearen kanpaina:** Elkarrekin batu dira eta gastu gutzietan aurrera egin ahal izateko dirua bihurtzeko kanpaina bat hasi du. Ekarpinak kon-

tu korrante honetan egin daitezke: ES23 3035 0058 3905 8011 6401.

**Bakaikuko festetan Playback erakustaldia:** festetako lehenengo egunean, uztailaren 22ko arratsaldean, playback erakustaldia egingo da plazan, adin gutzietan zuzendua dago. Udaletik erakustaldia egingo da plaza, adin gutzietan zuzendua dago. Udaletik erakustaldia egingo da plaza, adin gutzietan zuzendua dago. Udaletik erakustaldia egingo da plaza, adin gutzietan zuzendua dago.

**Lakuntzako festetako Playback lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik:** Abuztuaren 28an, igandean, egingo den lehiaketan parte hartzeko partaideen izenak eta aukeratuak kanta jakinarazi behar da emailen [lakuntzazakultura@gmail.com](mailto:lakuntzazakultura@gmail.com) helbidera idatziz abuztuaren 15a baino lehen. Baldintza bakarra kanta euskaraz izatea. 3 sari egongo dira, animatu eta parte hartu!

**Olaztikojaietan haurren zapi banaketarako izen ematea:** Urteroko ohitura jarraituz, aurreko urtean jaiotako haurrei zapi banatuko zaien festetako lehenengo egunean. Aurten 2021 urtean jaiotako haurren gurasoek izena eman behar dute Udaletxean uztailaren 15a baino lehen zapi jaso nahi izatekotan.

**Etzarriko jaietako XXVII. Playback txapelketa:** Abuztuaren 2an, asteartean, atsaldeko 19:00etan egingo den lehiaketan parte hartze- ra animatzen dute Udaletik. Sariak koreografia onenari 100 euro, euskal abesti onenari 100 euro eta parte hartzen duen talde bakoitzari 25 euro. Izen ematea [kultura@etzarriaranatz.eus](mailto:kultura@etzarriaranatz.eus) helbidera edo egunean bertan 18:30etik aurrera eszenatokian. Musika CDan edo USBan aurkeztu behar da. Epaia mahaia herriko eragile desberdinez ostatuta egongo da.

**Gazteen Jaibuserako baimena:** Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago, auto istripuak sahisteko. Lehen bidaia maiztaren 7an egingen ditu Iturmendin eta Altsasun festa baita. Jakinik, 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin sal-

buespena egiten da eta Jaibusera igotzeko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutoreek egin behar dute beraien eremuko Oinarriko Gizarte Zerbitzuan, adingabearen argazki bat eraman eta inprimaki bat bete. Irurtzango OGZ udaletxeko lehen solairuan dago, tfnoa 948 600 694, Etxarri Aranazkoa Kultur etxeko bigarren solairuan, tfnoa 948 460 752 eta Altsasukoa Garbitoki egoitzako azken solairuan, tfnoa 948 467 662.

**Aralarko San Migel Santutegiko beharrak ikusita:** erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzen dutenentzat, eta bertan harrera-lekua, kontrolgunea, denda eta komunak, baita interpretazio-zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharberriko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzen egitean zati bat bueltatuko diote.

**Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuko dirulaguntzak:** Euskaltegiendako, UEUn ikastaroak egin dituztenendako, euskara hutsez udalekuetara joan direndako, euskara ikasten daudenendako eta Errotuluak (dendetan etab) euskaraz jarri dutenendako dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskaerak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira. Ez dira posta elektroniko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.


[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburra.eus](http://www.iragarkilaburra.eus)

## ESKELA

## Peio Azpiroz Hernaiz

(Taldeko kide ohia)



Musikak bilduko gaitu

TRASTEANDO taldea

## JAIOTZAK

- Adei Escudero Lazkoz, ekainaren 23an Altsasun
- Aren Vals Espinosa, ekainaren 26an Etxarrirenen

## EZKONTZAK

- Javi Almirantearena Legaz eta Maitane Alzueta Galarza, ekainaren 25ean Irurtzunen
- Iker Uribeetxeberria Garmendia eta Joana Ziganda Olano, ekainaren 29an Irurtzunen
- Maria Milagros Perez Calvo eta Pedro Fermin Sagardia Urdaniz, uztailaren 1ean Irurtzunen

## HERIOTZAK

- Pedro Azpiroz Hernaiz, uztailaren 2an Ziordian
- Maria Isabel Rios Gonzalez, uztailaren 2an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)

## ESKELA



## Pedro Azpiroz Hernaiz

(Ziordian hil zen, 2022ko uztailaren 2an)

Besarkada haundi bat familiarendako

LABORAL KUTXAko lankideak

## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)IRACHE  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Eider Perez idazlea eta Iban Illarramendi ilustratzailea, 2022ko Etxepare sariko irabazleak. ETXEPARE SARIA

# 'Kiratsa' da aurtengo Etxepareko irabazlea

Iban Illarramendi eta Eider Perez egileen lanak irabazi du Nafarroako 22 toki entitatek antolatzen duten haurrendako album ilustratuen aurtengo txapelketa. Istorioak arkakuso baten abenturak ditu ardatz, eta usainei buruzko gogoeta plazaratzen du.

## SAKANA

2022ko Etxepare Sariak badu irabazlea: *Kiratsa* album ilustratua. Egileak Iban Illarramendi Echabe ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa eta Eider Perez Adeltx idazlea dira, eta Ñimi arkakusoaren istorioa kontatzen du. Haren bidez usaina, lurrina, kiratsa eta abar zer diren ikas dezakete haurrek, usain onei eta txarrei buruzko gogoeta plazaratzen baitu album ilustratua. Egileek 5.000 euroko saria irabazi dute, Pamiela argitaletxeak udazkenean argitaratuko duen liburuen aurrerapen gisa.

Album ilustratu batek testua eta irudiak uztartu behar ditu, eta Etxepare sariko aurtengo epaimahaiaren arabera, "testua ezin egokiagoa da album baterako: laburra, erremaduna, aberatsa eta onomatopeietan oinarrituta". Errezitatze eta dibertitzeko "ezin aproposagoa" dela gaineratu dute epaimahaiakideek. Ilustrazioei buruz "dotoreak, sofistikatua eta oso narratiboak

eta musikatasunez beteak" direla esan dute. Testuaren eta ilustrazioaren arteko uztarketa goi mailakoa dela eta "idazle eta ilustratzaileek album, ilustratu, josatagarria eta harmonikoa" lortu dutela gaineratu dute: "Berririo irakurtzeko eta usaintzeko gogoia ematen duena". Miren Asiain ilustratzaileak, Idoia Sobrino liburuzainak eta Patxi Zubizarreta idazleak osatu dute epaimahaia.

## Sariak

Etxepare Nafarroako 22 toki entitateko euskara zerbitzuek antolatzen dute, tartean Sakanako Mankomunitateak, Pamiela argitaletxearen eta Galtzagorri elkartearen laguntzarekin, euskarazko album ilustratuak sustatzeko helburuarekin. Nafarroako Gobernuaren Euskarabidearen babesletza du ere sariketarak. Aurtengoarekin hamasei dira lehiaketaren bidez saritu eta argitaratu diren album ilustratuak. 2022ko Etxepare Sariak

literatur lehiaketara 35 lan aurkeztu dira.

Literatura lehiaketan alorrean erreferentzia izanen zen saria sortzeko xedearrekin joa zen Etxepare, baina hemendik aurrera "hertsiki lotuta dagoen beste lan bati helduko" diola esan dute antolatzaileak: "Kulturak duen funtzio linguistikoa sakondu". Kultura iruditegiek bide asko zabaltzen dituztela azaldu dute, baita munduan leku bat egiten lagundu ere, "komunitate bat egituratzen, barne mundua elikatzea, trukea sustatzen eta abar".

Album ilustratuaren harira ere Iruñeko Udalak BikoTeka idazleendako eta ilustratzaileen topaketak antolatzen ditu. Aur-

**NAFARROAKO 22 TOKI ENTITATEEK ANTOLATZEN DUTE ETXEPARE SARIA, TARTEAN MANK-EK**

tengo edizioan saria jaso dutenak, hain zuzen, topaketa horietan parte hartu dute. "Etxepare Saria, urte luzez, sotzaileen hauspoa izan da".

## Egileak

Kiratsa izenburua du Iban Illarramendi Echabe ilustratzaileak eta Eider Perez Adeltx idazleak sortu duten album ilustratua, Etxepare sariaren irabazlea, eta udazkenean argitaratuko dutena. Illarramendik argitaletxeen eta publizitatearen munduan egiten du lan, batez ere. Euskarri ugaritarako egiten ditu ilustrazioak. Gainera, haurrendako ilustrazio esperimentaletako tailerrak ematen ditu, eta hainbat erakusketa egin ditu. Bere sorkuntza unibertsoa natura, itsasoa eta euskal sustraietan inspiratuta dago. Teknika mistoak erabiltzen ditu, eta lette-

ring-ak ere badu tokia bere lanetan.

Perezek *Lekore* aldizkarian, Txakur Gorria sormen kolektiboaren talde lanetan eta zenbait literatur sariketen bildumetan hainbat testu argitaratu ditu. *Hitzen uberan* literatur webgunean, *Oarsoaldeko hitzan* eta *Izotzetan islatuak: euskal idazle gazteen bilduma* antologian kolaboratu du, besteak beste. 2021ean *Alamedako dantzaldia* liburua argitaratu zuen. Ane Zubeldiarekin batera Autobiografikoa poesiarrezitaldi dramatizatua sortu zuen, eta *Andre eta Jabe* euskal emakume poeten ibilbideari buruzko ikuskizuna egin zuen Leire Etxarreta musikarekin batera. Aurkezle, gidoigile eta sormen irakasle lanetan aritu izan da, eta irudimenaren munduan murgilduta lan egiten du geroztik.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

## Erokeria multibertsoan

Aurrekoan lagun batekin pote bat hartzen nenen. Lagun horrek Marvelen pelikula bat ikusi zuen gauean eta harri buruz galdezka hasi zitzaidan erantzun bila. "Nor da heroi hau?" "Hau komikian agertzen al da?". Nik komiki frikismoko C1 maila daukadanez, erraz erantzun nizkion bota zizkidan galdera guztiak, bat izan ezik. "Hurrengo pelikula ikusi eta oraingoan dena ulertzeko... aurretik diren ehun pelikula eta serie guztiak ikusi behar ditut?".

Hain zuzen ere, Marvelen pelikularen bat ikusi duen edonork sentsazio hau izan du. Zerbait galduko duen edo pelikula guztiz ulertuko ez duen beldurrarekin sartzen da zineman eta gero, xehetasunak galdu dituen susmoarekin ateratzen da zinematik. Nire lagunak, eta ene irakurle askok, ez dakitena da komikietan hau asko eta askotan gertatu dela.

Marvelek heroien unibertsoa tresna moduan erabili du ekosistema handi bat garatzeko. Horrela, milaka istorio asma ditzake, pertsonaiak beraien artean nahastu, istorio gehiago sortzeko. Baita, bide batez,

komiki gehiago saltzeko ere, noski.

Horrek arazo bat dauka funtsean: irakurle berriek ez dute jakingo nondik hasi eta argitaletxeak laguntzen ez baditu, irakurleak nahaste-borraste batean geratuko dira interesa galduz. Pentsa, Marvelek 60 urte daramatza komikiak argitaratzen. Hainbat aldiz kontatu zuten Spidermanen jaiotze tragikoa behin eta berriro irakurle berriek Peter Parker nor den jakin dezaten. Hala izaten ohi zen Spiderman herri-kultura bihurtu zen arte. Bost urtetik behin Ben osaba gaixoa hiltzen zen Spiderman komiki saga batean. Estiloa, forma eta tonalitatea aldatuz, baina funtsezko istorio bera berdina kontatuz.

Hala ere, erraza da Marvel pelikulez gozatzea. Praktika baitaukate multibertso erokeriak kontrolatzen. Pertsonaiak komikietan askotan nahastu dituzte. Beti egonen dira garrantzi gehiago edo gutxiago duten pertsonaiak. Xehetasun txikiak galduko ditugu, baina, nahi izanez gero ere, ez dugu munduko komiki guztiak irakurtzeko denborarik.



# Dardaren bilduma

Nerea Balda Sanjuan idazleak 'DardaraK' izeneko poemategia argitaratu du Zerokotan elkarteko 'Bilduma Zero #2' poesia liburuan. Irurtzundarra herriko uztaileko festetako suziria botatzeko hautagaia izan da ere

## Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Zerokotan elkarteak ibiltzen den bikote batek duela urte bat inguru sortu zuela azaldu du Nerea Balda Sanjuanek. Iruñeko poesiaren mugimenduan ibiltzen omen dira, eta Irurtzundarrak Jose Miguel Bidador poesia taldean, Nafarroako Ateneoan dagoen poesia irakurtzeko talde batean, ezagutu zituen. "Elkarteak sortu zuten eta poesiari lotutako ekitaldiak antolatzen dituzte". Elkartearen barruan ere argitaletxe txiki bat egitea pentsatu zuten, "argitaletxe handietan argitaratu ezin duten jendeari bideratuta". Horrela, udazkenean *Bilduma Zero #1* poesia bildumen liburua argitaratu zuten. "Lau poeten sortak egiten dituzte, eta beti gutxienez bat euskaraz egotea saiatzeko dira". Balda lehenengo bildumaren aurkezpenean egon zen, eta bertan esan zioten bigarren poemategia ekainean argitaratu nahi zutela, "eta nigan pentsatu zutela". "Asko pentsatu gabe" irurtzundarrak baietz esan zuten.

Ekainean aurkeztu zuten, beraz, Zerokotan elkarteak argitaratutako *Bilduma Zero #2* poesia liburuen sorta. Lau idazleen poemategiak daude: Santiago Elso Torralbaren *Nadie sabe como hemos llegado hasta aquí*, Gabriela Lopez Bonoren *De lugares y seres*, Alfonso Muro Molinaren *Aún no gana la noche* eta Nerea Balda Sanjuanen *DardaraK*. Irurtzungo eta Altsasuko liburutegietan irakurtzeko aukera dago.

"Egia esanda egin nuena izan zen aurretik egile berrientzako literatur lehiaketan sarituen sorta batzuk aukeratu nituen". Aurretik argitaratutako lanak baziren ere, lehiaketek propio

sortzen dituzten argitalpenetan, "batzuk hemen eta beste batzuk han zeuden, eta denak batzeko aukera bat bezala ikusi nuen". Poemategi berriak sortzeko denborarik ez ziola ematen aitortu du idazleak, "ez nuen nire burua ikusten". Poemak idazten ditu, "baina gertatzen dena da epe baterako egin behar izatea, kantitate jakin bat... Sortu dezaket, baina denborarekin egiten dut eta ez dakit merezi duten". Azaldu duenez, gauza bat da sortzea eta beste gauza bat da sortutakoarekin "gustura" gelditzea.

## Dardarak

*DardaraK* bildumak hiru atal ditu, eta literatur lehiaketetara aurkeztutako bi bildumekin batera, aurrez argitaratu gabeko hirugarren poemategia publikatu du Balda: "Beste atalean azkeneko bi urtetako poemak daude, inon ateragabeak". *Bilduma* honetatik dator, hain zuzen, izenburua. "Izenik gabeko dardarak izena jarri nion, biltzen zuen gaia askotan sentitzen dugun horri zein izen jarri ez dakigulako. Haserre zaudenean badakizu haserre zaudela, baina beste batzuetan zenbait gauza nahasten zaizkigu, eta ez dakigu zehazki nola deitu. Izenik gabeko hori hortik dator". Baina gero konturatu zen dardara hitza bera eta haren sinonimoak beste poemategietan ere agertzen zela. "Nolabait gutzia biltzen zuen zerbait zen,

**"NOLABAIT GUZTIA BILTZEN ZUEN ZERBAIT ZEN; ETA HORI IZAN ZITEKEEN HITZA"**

eta ikusi nuen hori izan zitekeela hitza. Batzuetan ez gara konturatzen, baina behin baino gehiagotan agertzen da dardara". Hitza gustatzen zaio, aurretik konturatu ez bazen ere.

Azken aldian Balda poemategirako lanen aukeraketa egiten aritu da. Gainera, eleberririk bat "erdi hasita" zeukan eta hori bukatzen ibili da ere. "Lehenengo zirriborroa bukatuta daukat, eta orain errepasatu behar dut. Ez dakit noraino iritsiko den". Hori behin egin da, "orain irakurtzeko gogo daukat, egia esan". Idazleak azaldu duenez, askotan gertatzen da denbora bat idazten egon ondoren, "hutsik bezala gelditzen zarela", eta denboralditxo batean irakurtzen pasa behar duela. "Gero, ez dakit. Agian zerbait bururatuko zait eta hasiko naiz idazten, bainai momentuz buruan hori daukat".

## Herriko errekonozimendua

Irurtzungo festetako suziria botatzeko bozketan Balda hautagaietako bat izan da, "euskal kultura zabaltzeagatik", Iratxo elkartearen Sakanako ibilaldia antolatzen duen mendi sailarekin batera. Azkenean, azken hauek botako dute festak iragarriko duen txupina. "Ez dut sorpresa handirik izan kolektibo bat delako, eta uste dut jende askok parte hartzen eta laguntzen duela, eta aitortza jende askori egiten zaiola". Hautagaietako bat izango zela bazekien, aurreko urtean ere dantza taldeko pertsona batek bere izena proposatu zuelako, "baina ez zen atera". Aurten, dantzako kideak ez ezik, beste elkarte batek proposatu zuen idazlea suziria botatzeko, "eta hautatu naute".



Nerea Balda Sanjuan 'DardaraK' poemategiaren aurkezpenean. ZEROKOTAN ELKARTEA



## 11 GALDERA



Iñigo Aldunate Burguete musikaria Iruñeko txupinazioaren ondoren jotzeko prest. UTZITAKOA

# "La Pamplonesa oso maitatua da Iruñean"

Iñigo Alduante Burguete Lakuntzan bizi den Oibarreko musikariak 27 urte daramatza Iruñeko San Fermin festetan La Pamplonesarekin jotzen. Festa piztu zenean banda udaletxetik atera zen, uztailaren 6an riau-riau ospetsua ere jo zuen

## Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

### 1 27 urte sanferminetan La Pamplonesan jotzen. Nola hasi zinen?

Ez naiz Iruñekoa, eta uste dut ere lehen sanferminak ez zirela orain bezalakoak. Orain ohikoa da seme-alabekin tokietara joatea. Gure garaian hori ez zen normalena. Orduan, ez nituen asko ezagutzen. Kontserbatorioan ikasten ari nintzen, eta bandan plaza bat atera zen. Klasean probak egitera animatu ninduten, eta Pamplonesan ezagutu nuen zer ziren sanferminak.

### 2 Eta nolako izan zen lehenengo ezagutza hori?

Inpaktu handia izan zen. Festa erraldoi bat da. Gazteago zarenean edo gaztea zarenean tartekatuz dezakezu bandako jarduna gauean ateratzearekin, betiere kontrolatuta jotzeko ongi egon behar zarelako. Dianak oso goiz dira; 06:45ean hasten dira. Orduan, parrandan zaudenean, errazagoa

da gaupasan jotzera joatea, 3:00etan oheratu eta 6:15ean jai-ki behar izatea baino. Arrisku-tsuagoa da. Gogorra da, baina gustura egiten duzu. Gainera, banda oso maitatua da. Nabaritzen duzu. Errespetuarekin tratatzen gaituzte; begirune handia dago. Jendeak badaki lanean zaudela, eta zure papera garrantzitsua dela festan.

### 3 Txupinazioaren ondoren jotzen duzue lehendabizikoz?

Txupinazioaren ondoren *Gain-tzaren biribilketa* sanferminetako lehenengo abestia jotzen duzu, udal txistulariekin batera. Gertatzen dena da, aspaldi, edozein herriko festetan bezala, musikariak plazan egoten zirela, baina Iruñeko jendetzarekin egonezina suertatu zen eta udaletxearen azpikaldean atak itxita jotzen genuen. Bakarrik gureatzeko kanta zen. Aurten, txistularien ekimenez plazan jotzeara berreskuratu dute. Udaltzainak atera ziren eta bo-

robit bat egin zuten eta erdian txistulariak jarri ziren eta guk barrutik eta atak irekita jo genuen elkarrekin.

### 4 Aurten berezia izan da, beraz.

Lehenengo kanta hori izan da. Nik ez nuen ezagutzen plazan jotzeara eta 27 urte daramatzat. Normala da txistulariek berreskuratu nahi izatea, udaletxe barrukoarena oso izkutua bezala gelditzen zelako. Komunikabide gutxi batzuk zeuden. Oso galdua gelditzen zen.

### 5 Zer sentitzen duzu txupinazioaren momentu horretan?

Txupinazoarena arraro samarra da. Behean gaude, atak itxita, ia ez dugu ezer aditzen oso isolatuta dagoelako. Zerbait ikusten dugu, baina isiltasun moduko bat sumatzen dugu. Txupinazioa ere ez dugu enzuten. Ateak zabaltzen dituztenean, orduan bai, sentitzen dugu alaitasuna, kantak, soina... Guretzako txupinazio moduko bat da. Bitxia da,

hunkigarria. Imajinatzen dut iruindarrendako bereziagoa izango dela.

### 6 Beti horrela bizi izan duzu txupinazioa?

Beti hor barruan. Lehenengo pieza hori jotzen dugu, gero gaitariak ateartzen dira, eta gero gu kalejiran ateratzen gara. Arratsaldean *riau-riau* eta beste gauza batzuk egiten ditugu.

### 7 Dianak ere jotzen dituzue, unetxo oso garrantzitsuak, ezta?

Denetarik elkartzen da. Badago jendea eguna dianekin hasten dena, eta badago jendea dianekin eguna bukatzen duena. Denak elkartzen dira musikarekin dantzaz eta giro handian.

### 8 Nolakoak izan dira bi urte hauek jo gabe?

Oso arraroa. Ordezkatzeko bandan gauzak egin ditugu, jarduna ez da gelditu, baina ez da gauza bera, nahiz eta musika sanfermineroa jo. Pena sentitzen duzu. Festa oso garrantzitsuak dira gizartearendako ere. Hori galtzean

samina nabaritzen duzu. Ezin izan zen. Eta ea aurten nola bukatzen dugun. Gure lanean ezin ditugu musukorik jarri...

### 9 Gaztetan bai, baina orain parrandarako unea baduzu?

Ez, orain familiarekin egon behar naiz. Iruñean 6an eta 7an gelditzen naz, jarduna luzeak direlako. Hurrengo egunetan dianak eta zenezketen aurrekoa egitera joaten naiz. Txupinazioaren aurretik ongi pasatzeko tarteak badugu, eta jo bitartean disfrutatzen dugu ere.

### 10 Anekdotarik?

Bai, baten bat badago.

### 11 Eta momentu larriak?

Gutxi. Behin diana batean musikari bati garagardo botila bat bota zioten buruan. Ez da normalena. Riau-riarekin lotuta istuluak izan dira; ni ez nengoen, baina behin izan ziren udaletxetik atera. Beste batean bertan behera gelditu zen eta ahal izan genuen bezala atera ginen hortik. Baina oso gutxitan izan da.

**gik**

DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu